



Oñatin ere berezia

Errege Kopako finalak ikusmin handia piztu du herrian. Bi taldeetara iritsi diren herriko bi jokalaria eta peñetako ordezkariak elkartu ditugu, Euskal taldeen arteko hitzordu historiko honen atariko egiteko.

FINAL HISTORIKOA



Ehun urtetik gorako historia dute Athletic-ek eta Realak. Baina inoiz ez dira elkarren aurka aritu garrantzia honetako titulu ofizial bat jokuan egonik. Honenbestez, apirilaren 3an Sevillan jokatuko den Errege Kopako finala historikoa izango da. Bi taldeetan jokatu duten oñatiarrak elkartu ditugu partidaren gakoak aztertzeko. Santi Mendiola

Santi Idigoras Bilbao (Oñati, 1953) Realaren historian izan duen talderik onenean aritu zen 1974-1981 artean. Txuri-urdinen historiako lehen liga txapelketa (1980/81) irabazi ostean, Mexikoko Puebla taldean (1981/82), Valentzian (1982/83) eta Alavesen (1983/85) aritu zen, botak eskegi aurretik. **Ricardo 'Ritxi' Mendiguren Egaña** (Oñati, 1968) 1987tik 1997ra aritu zen Athletic-eko lehen taldean, eta Las Palmasen (1997/98) eman zion amaiera ibilbide profesionalari. Athletic Fundazioko zuzendaria izan zen 2016-2019 artean.

Nola ikusten duzue finala?

Ritxi. Sasoi onean iritsiko dira talde biak, eta derbi bat izanik, ez dut faborito argirik ikusten. Gakoa, nire ustez, antsietatea ondo neurtzea izango da; hau da, behar den tentsio puntuari eustea, baina neurrian.

Santi. Real futbol ikusgarria egiten ari da aurten. Abendu aldera izan zuen pattalaldi bat, baina berriz ere joko bizia, azkarra eta ikusgarria egiten ari da. Athletic bera ere asko hobetu da Marcelino iritsi zenetik, eta partidu bakarrera edozer gerta daiteke, baina uste dut, jokoari dagokionez,

Reala Athleticen **gainetik** da-goela une honetan.

Zein izango da Athleticen arma nagusia?

R. Gako asko egoten dira era honetako partiduetan. Lehen gola sartzen duenak asko dauka irabazita, eta, bestalde, oso garrantzitsua da une puntaletan akatsik ez egitea. Edozein modutan, uste dut partidu luzea egiten saiatu behar duela Athletic-ek. Azken bi urte hauetan behin baino gehiagotan ikusi dugu kanporaketak azken unean irabazten. Beraz, ez dugu pentsatu behar lehenbailehen irabazi behar dela. Antsietate hori ongi neurtu behar da.

«Txapeldun izanda hobe, baina niretzat garrantzitsuagoak dira taldearen ibilbidea, nortasuna eta eredu»

'Ritxi' Mendiguren
Athletic-eko jokalaria ohia



23

ERREGE KOPA
ATHLETIC-EK



2021.04.3

21:30

LA CARTUJA (SEVILLA)

ATHLETIC CLUB



«Jokuari dagokionez, une honetan Real Athleticen gaintik dagoela uste dut»

Santi Idigoras
Realeko jokalaria ohia

Eta Realaren arma?

S. Orain arteko joku-ideiari eustea; joku azkarra, bizia, aurkariaren zelaian presioa eginez... Oyarzabal, Silva, Merino edo Isac bezalako jokalariekin iritsiko dira aukurak eta golak. Orain arteko mailari eusten badio, irabazteko aukera asko dituela iruditzen zait. Futbolaz dakien edozeinek esango dizu, Real aurtan egiten ari den jokia oso goi mailakoa dela.

Zerk kezkatzen zaitu aurkariarengandik?

R. Zelaiaren erditik aurrera jokalaria oso onak ditu Realak, edozein momentutan gol aukerak sortzeko gai direnak.

S. Marcelino iritsi denetik asko hobetu da taldea, batez ere agresibitatean; korrika asko eta presio handia egiten dute. Uste dut hori dela beraien arma nagusia.

Athleticek Superkopa irabazi berri du, eta Kopako beste final bat jokatu du laster. Alde horretatik, presio gutxiago izango duela uste al duzue?

S. Ez dut uste hori erabakiorra izango denik. Uste dut biak iristen direla sendo, bai

fisikoki eta bai psikologikoki.

R. Finalak irabazteko jokatzeko direla esan ohi da, baina ni ez nago ados. Finalera iritsi egin behar da, eta irabazten saiatu. Athleticek kopako 39 final jokatu ditu, eta horietatik 24 irabazi. Beraz, uste dut antsietatea kendu behar dugula, bai talde barruan eta baita inguruan ere. Umiltasunez jokatu behar dugu, eta hortik etorriko dira emaitzak.

Irabaziz gero, gabarra ateratzearen aldekoa al zara, Ritxi?

R. Ez zait gauzak aurreratzea gustatzen. Gainera, gogoratu behar da, Athleticek 24 kopa, 8 liga eta 3 Superkopa irabazi dituela, eta birritan bakarrik atera dela gabarra. Azkenengo aldiz nik 15 urte nituela. Oso gogoan dut, eta polita litzateke gaurko gazte eta umeek ere hori bizi ahal izatea. Baina, askotan, ahaztu egiten zaigu ibilbidea dela inportanteena; gure ibilbidea eta gure nortasuna. Jon Maiak 2019ko derbian abestu zuen bezala, "gure garaipen handiena, garena izatea da". Horrek ez du esan nahi konformista izatea. Ez. Gu beti irabaztera aterako gara, baina gure eredia eta nortasunak hor egon behar du beti.

Zuk, Santi, historiako Reallik onenean jokatu zenuen. Nola konparatuko zenuke orduko eta gaurko Realak?

S. Oso zaila egiten zait konparazio bat egitea. Garai oso desberdinak dira, futbola asko aldatu da... Talde hark historia egin zuen bi liga txapelketa irabazita, eta Txapeldunen ligako finalerdietara iritsita. Talde honek halako tituluak irabazten badiu, orduan konparatu ahal izango dugu harekin. ■



2

ERREGE KOPA REALAK



Nolako finala aurreikusten duzue?

A. Duela pare bat hilabete baino orekatuagoa ikusten dugu. Marcelino etorri denetik asko hobetu dugu eta partida batera, irabazteko aukera asko izango ditugu.

R. Oso parekatua. Realak dinamika onean ikusten dugu eta Athletic ere, entrenatzailea aldatu zuenetik askoz talde lehiakorragoa da.

Partida alde batera edo bestera erabakitze gakoak zeintzuk izan daitezke?

A. Zelai erdia eta atzeko leerroa. Realak baloia oso ondo mugitzen du eta aurrean jokalarik oso arriskutsuak ditu. Defentsako lan ona egiten badugu, aurreran guk ere jokalarik oso onak ditugu.

R. Aurkariaren atean sortzen ditugun aukerak ez barkatzea erabakiorra izango dela uste dugu. Erasoan aukerak izango ditugu eta hor fin ibil-

**«Detaile txikiak erabakiko dute finala»**

Herriko hiru peñetako ordezkariekin hitz egin dugu eta orokorrean oso final parekatua ikusten dute.

tzea oso garrantzitsua izango da kopa irabazteko.

Publiko gabeko finala izango da. Peñakoeekin elkartzea ere, ez da posible izango. Non ikusiko duzue partidua?

A. Pena bat da baina etxean ikusi beharko dugu. Gaur egungo mugek ez dute taldean elkartze aukerarik ematen eta arduraz jokatu beharko dugu zaletuok ere.

R. Bakoitzak bere etxean

ikusiko dugu. Ez dago beste aukerarik. Egoera normal batean egongo bagina, Izarraitz tabernan ikusiko genuke taldeko kide askok elkarrekin.

Irabaziz gero nola ospatuko duzue?

A. Zerbait egitea gustatuko litzaiguke. Neurriak errespetatuz, baina denboraldiko bigarren titulua izango litzateke eta hirugarren bat irabazteko aukeran egonik, oso zaila egiten zaigu ospakizunik ez egitea. Dena den, aurrez esan bezala, talde moduan ez dugu ezer prestatuko. Gerora zerbait egitea erabakitzen bada, momentuko egoerara egokitutako ospakizun xumea izango da.

R. Ez dugu ezer prestatuko. Bakoitzak bere etxean edo familia giroan ospatuko dugu. Hala ere, ospakizunik politena, Anoetan jokatu den ligako derbian, Athletic-ek pasilloa egitea izango litzateke.



Mireia Bikuña Madrid
KAZETARIA

«Faktore psikologikoa klabea izango da»

«Realekoa izanik, talde donostiarren irabaztea gustatuko litzaidake. Hala ere, final parekatua eta erabakitzen zaila aurreikusten dut. Bi taldeak joku estilo oso ezberdinak dituzte baina horrelako finaletan faktore psikologikoa oso garrantzitsua izaten dela iruditzen zait. Jokuan nagusi izatea garrantzitsua izango da, baina presio hori ondoen kudeatzen duen taldeak irabazteko aukera asko izango ditu».

**Nolako finala aurreikusten duzue?**

Iñigo Igartua Anduaga
KAZETARIA

«Athletic ikusten dut faborito finalean»

«Oso partida itxia aurreikusten dut. Realak motibazio asko izango du urte asko baitira ezer irabazi gabe. Kontran, esperientzia handiko jokalariek eta ofizio askoko taldea izango du. Realak joku eta kalitate gehiago dauka, baina alde gutxiarekin bada ere, Athletic ikusten faborito».



Iñaki Fernandez Guridi
KAZETARIA

«Garaipena garesti egongo da»

«Reala finalaren erritmoa eramaten ikusten dut. Athletic baloirik gabe ere, eroso ikusten dut. Marcelinoren fitxaketak, baina batez ere, Superkopa irabazi izanak, irabazle sena bueltatu dio talde bizkaitarrari. Biak ikusten ditut gol bat egiten. Garaipena lortzea garesti egongo da».



Iñigo Barrena Kortabarria
KAZETARIA

«Oso final parekatua aurreikusten dut»

«Duela urtebete galdera hau erantzun beharko banu, garbi esango nizuke Realak faborito ikusten nuela. Orain, batez ere Marcelino etorri denetik, gauzak asko parekatu dira uste dut. Athletic partida bakarrera oso talde lehiakorra da eta Realak tentuz jokatu beharko du. Athletic-ek esperientzia dauka horrelakoetan eta Realak berriz, bere joku estiloan oinarritu du orain arteko arrakasta».

Zein da eratu fisioterapia zentroaren bilakaera azken urteetan?

Zientziari eta teknikotasunari eutsiz, "humanizazio" prozesu esanguratsua izan dela esan dezaket.

Emakumearen Osasuna ardatz, punta puntako formakuntza, praktika klinikoa eta bizipen pertsonalei esker, asko ikasi dut eta garapen profesionala handia izan da.

14 urte daramatzat erditzera gertakuntza eta erditze osteko tratamendu zein ikastaroak eskaintzen.

Emakume ugari ezagutu ditut, egoera ezberdinetan (arazo uro-ginekologikoekin, arazo digestiboekin, ama izan nahian, ama izanda, menopausian...) eta guzti horiei lagundu, zein beraien arazoei erantzuna emateak, profesional bezala osatu egin nau.

Pandemia garaiak, ama izan diren enakumeei, nola eragin die?

Amatasuna eta erditze ostea, sentimendu nahasien garaia izaten da emakumeontzat. Ingurukoen babesa (emozionala, fisikoa) ezinbestekoa izaten da eta konfinamenduak isolamendu kutsua eman dio egoera berezi honi.

Nere gairai helduaz, erditzera gertakuntza eta erditze osteko saioen presentzialtasun ezak, esperientzia hauen osasuna kaltetu duela uste dut. Osasun neurriak hartuz, baina iruditzen zait saio hauek presentzialak izan behar direla beti.

Erditze osteko saioetan adibidez, presentzialtasuna ezinbestekoa da emakumea baloratu, erredukazioko ariketen ejekuzio egokia egiten duela baieztatu eta beraien feedback-a izateko. Hau da nire ustez, kalitateko erredukazioa. Gainera, bizipenak elkarbanatzeko gunea ere izaten da eta emozionalki ere lagungarri izaten dira hone-lako talde esperinetziak.

MIREN GALDOS

ERATU FISIOTERAPIA ZENTROKO ARDURADUNA

"Erditze ostea sentimendu nahasien garaia izaten da emakumeontzat"

Pandemia garaiak presentzialtasuna murriztu duen garaiotan, aurrez-aurreko saioak egitearen garrantziaz mintzatu zaigu Eratu fisioterapia zentroko arduraduna. Ama izateko bidean daudenentzat, aurretiazko eta ondorengo saio espezializatuak eskaintzen dira bertan. Osasun neurri guztiak errespetatuz, maiatzean hasiko den formakuntzari begira, saio hauek emakumeen bizitzan duten garrantziaz hitz egin digu.



Miren Galdos, ikastaro berriak hasteko prest.

«14 urte daramatzagu erditzera gertakuntza eta erditze osteko tratamendu zein ikastaroak eskaintzen»

«Erditzera gertakuntza eta erditze osteko saioen presentzialtasun ezak, esperientzia hauen osasuna kaltetu du»

«Eratun osasun neurri guztiak errespetatuz lana egiten dugu. Maiatzean hasiko gara erditze osteko hurrengo formakuntzarekin»

Eratu fisioterapia zentroan, erditzera gertakuntza eta erditze osteko erredukazioa izuliko dira?

Halaxe da. Pandemia garaian, taldekako saioak gelditu izan ditugu. Gaur egun, berrantolatuta daude eta emakumeak parte hartzea gonbidatu nahi ditut. Garai honek sekulako garrantzia du. Orain da aukera.

Talde murriztuetan (4 pertsona gehienez) lan egiten jarraitzen dugu, gelak aireztatuta eta maskarillen erabilera bermatuta, leku segurua da Eratu Fisioterapia zentroan.

Erditze osteko hurrengo taldea Maiatzean abiatuko da. Erditzera gertakuntzarako informazioa Eratu Fisioterapia zentroan eskuratuko dute: eratu@euskalnet.net era idatzi edo 943 53 32 99 telefonora deituz.



FISIOTERAPIA ZENTROA

Maiatzean talde berria!!

INFORMAZIO GEHIAGO:

San Lorentzo 54

T. 943 53 32 99

eratu@euskalnet.net

www.eratufisioterapia.com



OÑATIERAZ IDATZITAKO LEHEN LIBURUAK HERRITARREN ESKURA

Manuel Umerezek 1805 inguruan idatzitako bi liburuak digitalizatu ditu udalak Gipuzkoako Artxibo Historikoaren laguntzarekin



Jose Ramon Arrazola, liburuen jabea, eta udaleko nahiz artxiboko ordezkariak liburuak erakusten

Manuel Umerez Agirre (1757-1818) abadeak 1805 inguruan Oñatiko euskaraz idatzitako bi liburu digitalizatu eta sarean ipini ditu udalak.

Lehendik ere ezagunak ziren liburuak. Koldo Mitxelena edo Luis Villasante bezalako hizkuntzalariek aipatu izan zituzten beraien lanetan. Jerardo Elortza historialari eta hizkuntzalari oñatiarrak ere

ikerketa lan ezberdinak argitaratu izan ditu Umerezen eskuizkribuen gainean, eta Elortzak berak egindako liburuetako baten transkripzioa ikusgai dago udalaren web-gunean.

Baina originalen jabetza partikularra izateak ikerketarako zailtasunak sortzen zituen eta, horregatik, Oñatiko historiaz eta ondareaz ardu-

ratzen diren *Gure Bazterrak* eta *Artixa* taldeko kideek lantalde bat osatu zuten, udal liburutegia, euskaltegia eta Gipuzkoako Artxibo Historikoko ordezkariekin batera, eta udalari eskatu zioten bitartekari lanak egin zitzan, bi helburu nagusirekin: Umerezen eskuizkribuen kopia on bat bermatzea, eta Oñatiko ondare kulturalera bi harribi-

txi hauek herritarren eskura jartzea, edonork kontsultatu ahal izateko.

Udalak bitartekari lanak egin zituen eskuizkribuen jabe den Jose Ramon Arrazolarekin, eta honek ez zuen inolako eragozpenik jarri liburuak digitalizatzeko, udalak eta artxiboak eskaintako bermeak ikusi ondoren. Hala, Gipuzkoako Artxibo Historikoko baliabide tekniko eta pertsonalak baliatuz, hamar egunen buruan bi liburuak (400 orrialdetik gorakoa bakoitza) digitalizatu eta jabearen etxean bueltan zeuden.

Iñaki Olalde, udaleko kultura batzordeko burua, eta Ramon Martinek, Gipuzkoako Artxibo Historikoko arduradunak, eskerrak eman dizkiote Arrazola jaunari, emandako erraztasun guztiengatik, eta

ANE MERTZERIA

- Josteko zerak
- Lentzeria
- Umeen jantziak

Kale Barria, 54 OÑATI

Cartonajes Arregui, S.A.

- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI

azpimarratu egin nahi izan zuten herriko eragile publiko eta pribatuen arteko elkarlaren emaitza izan dela Umezen liburuen digitalizazioa, eta hori oso pozgarria dela.

LIBURUAK

Digitalizatu berri diren bi liburuak Garibargoiti baserriko seme Manuel Umezez abadeak idatzi zituen XIX. mendearen hastapenetan. Lehenengoa (**Osaba baten instruccinuac bere iloba Ezcondu eta Necazari batentzat bere eta bere Familiaren gobernu oneraco Jaungoicoaren Legue santubagaz conforme**) bere ilobari zuzenduta dago eta 440. orrialde ditu. Bigarrena, (**Errectore Jaun baten instruccinuak ezcondurik vizi dan bere Adisquide Necazari batentzat bere eta bere Familiaren gobernu oneraco Jaungoicoaren Legue santubagaz conforme**) adiskide nekazari bati zuzenduta dago eta 478 orrialde ditu.

Biak ala biak Oñatiko euskaraz idatzita daude eta, beraz, garrantzia handikoak dira hizkuntzalaritzaren ikuspuntutik, garai hartatik iritsi zaigun gure euskararen lekukotasun bakanetakoa direlako, edo bakarra ere esan liteke,



Gipuzkoako Artxibo Historikoan digitalizatu dituzte liburuak, eta udalaren webgunean daude irakurgai kalitate maila handiarekin, ondoko argazkian ikusten den moduan.

Eskaneatu QRa liburuak irakurtzeko



luzerari eta osotasunari bagagozkio.

Baina filologiak ez du lan hauek sor dezaketen interesa agortzen. Gehien bat abade batek bere ilobari eta adiskide bati emandako aholkuak izan arren, tarteka xehetasun historiko, soziologiko eta etnografiko interesgarriak ere eskaintzen dira liburuotan: duela berrehun bat urteko jateko eta jazteko modua, orduko sineskerak, ohiturak, ekonomia, gizarteko gorabeherak, apaizen pentsamoldea....

UDALAREN WEBGUNEAN

Umezen liburuak udalaren webgunean daude irakurgai, eta azpimarratu beha da, gainera, digitalizazioaren kalitate maila handiak asko errazten duela irakurketa.

Liburuki originalak ikusi nahi izanez gero, berriz, jakin Ibarren egoitza duen Gipuzkoako Artxibo Historikoan egongo direla ikusgai **apirilaren 9ra arte**, duela gutxi aurkitu zen XVI. mendeko euskaraz idatzitako maitasun poemarekin batera. ■

Manuel Umezez, Goribargoitiko abadea

Manuel Umezez Agirre (1757-1818) digitalizatu berri diren liburuen egilea, Goribargoiti baserrian jaiotzen. Abadetu eta laster (1878) San Migel parrokiaren ageri da, eta hainbat kargu izan zituen kabildo barruan, besteak beste, idazkariarena.

Manuel hil ondoren, bere iloba Juan Jose Umezez Billarren eskuetara pasa ziren liburuak, eta, azkenik, Pedro Arrazola Umezezek jaso zituen. Pedro, Olabarrietako Arrazola Azpiko baserriko semea zen, eta bere ama Goribargoitiko. Horrenbestez, Goribargoitiko sortutako lanak urte batzuk beranduago Arrazola etxean gorde ziren, eta bertan aurkitu zituen 1930 aldera J. Adrian Lizarralde Arantzazuko historiagileak.

Liburuek ez zuten sinadurarik ezta datarik ere, baina Jerardo Elortzak egindako ikerketa lanari esker argitu ahal izan ziren egiletza eta argitaratze urteak. ■

Batxilergoa,
ELKAR HEZIn
sentitzen, izaten, ikasten

Matrikula epea: **APIRILAK 12-23**

Informazioa: 943 71 82 72 / 688 621 195
idozkaritza@elkarhezi.eus / www.elkarhezi.eus



Auzokonpost guneak eta konpostatze prozesuak hobetzeko hainbat neurri hartu ditu udalak

Konpostagailu berriez gain, material egituratzaile hobea eta ur biletgiak ipini ditu auzokonpost-guneetan. Gainera, konpost heldua gordetzeko siloak egokitu ditu kanposantu atzealdean

Zazpi urte dira, jada, Oñatin auzokonpost guneak martxan jarri zirela, Bidebarrietan (2), San Martinen, Ugarkalden, San Lorentzon, Errekalden eta Eltzia inguruan.

Urte hauetan zehar gorabehera ezberdinak izan dira gune hauen inguruan, eta

udala jakitun da, zerbitzuari hasieran eman zitzaion jarraipena gutxituz joan dela denborarekin. Bestalde, 2019an, auzokonposta guneak arautzen dituen dekretua onartu zuen Eusko Jaurlaritzak.

Beraz, hori guztiori kontuan hartuz, hainbat hobekuntza

egitea erabaki du udalak, auzokonpost guneetan atzemandako akats eta gabeziei konponbidea emateko asmoz, eta, bide batez, hondakinen kudeaketa jasangarriarekin eta zero zabor helburuekin duen konpromiso irmoa berresteko.

Konposta egiteko kutxa berriak jartzea izan da neurrietako bat. Poliki poliki, gune guztietako kutxak berritu ditu udalak. "Konpostagailu berriak (1.000 litro) handiagoak dira (lehenagoak 700 litrokoak ziren) eta horrek konpostatze prozesua hobetzen laguntzen du, materia organiko gehiago batzen delako eta, horri esker, temperatura handiagoa lortzen delako, eta egon litezkeen bakteriak lehenago hiltzen direlako" azaldu digu Axier Iraetak, udaleko Ingurumen batzordeko buruak.

Konpostagailu handiagoak jartzeak erabiltzaile taldeak berrantolatzea ere ekarri du; orain gune bakoitzeko erabiltzaile guztiak talde bakarrean bildu dira; hau da, guztiak kutxa berera botatzen dute materia organikoa.

Handiagoak ez ezik, gogoragoak ere badira konpostagailu berriak, eta, hala, arratoiekin egon izan diren arazoak ekidin dira.

EGITURATZAILE HOBEA

Materia organikoak izaten duen hezetasuna orekatzeko, eta konpostatze prozesuak behar duen aireztapena hobetzeko, material egituratzailea nahastu behar izaten da hondakin organikoekin, eta orain arte, zerrautsa erabili izan da egituratzaile gisa. Baina denborarekin ikusi da ez dela materialik egokiena horretarako.

Horregatik, udalak makina birrintzaile bat erostea erabaki du (ikus ondoko orrian), inausketa lanetatik ateratzen diren hondakin begetalak txi-

 **garmendia tejas**

Basozabal Industriadea 5 · N-1, km 417

20212 Olaberria (Gipuzkoa)

T. 943 161 032

www.garmendiatejas.com



pitu eta material egituratzaile gisa erabiltzeko. Gainera, material hori auzokonpost guneetan uzteko kutxa berriak ere erosi ditu udalak, lehengoak baino txikiagoak, erabiltzaileentzat erosoagoa gerta dadin.

Gainera, ur-biltegi bana ere ipini du udalak auzokonpost guneetan, konpostatze prozesuan behar den hezetasun puntua mantendu ahal izateko eta, bide batez, hondakin organikoan ontzi edo kuboak bertan garbitu ahal izateko.

KONPOST SILOAK

Konpost heldua gordetzeko siloak ere egokitu ditu udalak kanposantuaren atzealdean, goiko argazkian ikusten den moduan. Zortzi kutxa handi dira, eta auzokonpost guneetako konpostagailu bakoitza betetzen denean, kanposantuko biltegiara eramaten da, hango kutxa handietan konpostatze prozesua osatu dadin. "Siloak bete ahala, berriz ere birrintze makinatik pasako dute konposta, dena ondo xehatu eta, galbahetik pasa ostean, kalitate oneko konposta lortzeko" azaldu digu Iraetak.

Konpost hori zertarako erabiliko den ere azaldu digu Ingurumen batzordeko buruak. "Jaurlaritzaren dekretuaren arabera, konposta ezin da elikagaien katearekin nahastu. Beraz, ezingo da baratzeetan erabili, dekretuari jarri zaizkion helegiteak argitu arte. Dekretuak baimentzen du konposta lorezaintzan erabiltzea, eta, beraz, lorezaintza zerbitzuari eskaintzeko mo-



Kanposantu ostean konpost heldua gordetzeko egokitu diren siloak



Hondakin begetalak birrintu eta material egituratzailea lortzeko makina



Egituratzaile ezberdinen alderaketa. Ezkerrean zerrautsa erabilia.

duan izango gara, eta baita herritarrei etxerako ere".

PROBA PILOTUA

Auzokonpost guneetan egiten ari den hobekuntza neurriekin jarraituz, laster proba pilotu berria egiteko asmoa ere badu udalak, konpostagiluak txip bidezko txartelen bidez irekitzeko sistema jarriko baitu martxan. Modu horretan, auzokonpost guneetako konpostagailuak izena emanda dauden herritarrek soilik erabiltzen dutela ziurtatu nahi da, eta funtzionamenduari buruzko bestelako informazioa ere jaso nahi du udalak, prozesua optimizatze aldera, betiere. ■

"HERRITARRAK ANIMATU NAHI DITUT AUZOKONPOSTA EGITERA"



Goian aipatutako hobekuntza neurriez gain, udalak Luar enpresa kontratatu du, auzokonpost gunetako konpostatzen prozesuaren jarraipena egiteko. Hala, konpostaren kalitatea ez ezik, auzokonpost guneetan parte hartzen duten herritarren esperientzia nabarmen hobetuko dela uste du Axier Iraeta, udaleko Ingurumen batzordeko buruak. "Nire ustez oso eroso da, hondakin organikoak nahi duzunean ateratzeko aukera ematen duelako, eta, gainera, ez du aparteko lanik eskatzen. Beraz, animatu egin nahi ditut herritarrak auzokonposta egitera".

Gogoratu, konposta egiten duten herritarrei %25eko hobaria edo deskontua aplikatzen zaiela zabor tasan. Izena emateko edo informazioa eskatzeko, idatzi nekazaritza@onati.eus helbidera. Gaur egun 185 familiak parte hartzen duten herriko zazpi auzokonpost guneetan.

Zuntza 600 Mb | Mugikorra 7 GB

Simetrikoko + Dei mugagabeak

IRAUNKORTASUNIK GABE

42 € HILEAN

BETIRAKO

BANATZAILE BAIMENDUA

KONTRATATU ZURE GUUK ZUNTZA LIZKER INFORMATIKA DENDAN

Atzeko Kalea, 32, 20560 Oñati
943 09 06 00

ZUNTZA MUGIKORRA TB

BEZa berriz. Erabilera 2020/11/30ra arte egongo da indarraren Euzkoan eta Nafarroan. Linea osagarriak edo 1GB ko doako Guuk tarifa. "Zuntza + Mugikorra" eskaintza hauetan bada, linea osagarriak "Mugikorra Bakarrik" tarifa linea prezioak izango dituzte, GB eta destakako minutu kopuru berekin. 1GB ko doako Guuk tarifen kasuan, prezio berriz 6,5€/hil izango da. "Zuntza + Mugikorra" pakete bakoitzeko linea mugikorren gehienezko kopurua 4 izango da. Linea nagusia kontatzen hartu gabe. "Zuntza + Mugikorra" eskaintzak ez du iraunkortasunik edo zigorrik izango. "Mugikorra Bakarrik" kontratua: rinka eta mugikor nazionalerako dei mugagabeak, 7GB eta 40MB min. Baga hori gainditzean, abiadura 16 Kb/s ia jaitziko da. Nahi duzunean eman diezakezu baja zerbitzuari, baina bidaltzailea 30 eguneko epean itzuli beharko duzu; bestela, 121€-ko zigor bat ordaindu beharko duzu (BEZa barne). Kontsultatu gureko baldietzak helmer: www.guuk.eus

ARAN

MENDIZALE SUTSUA



ATXA

BIDAIARI AMORRATUA

#Mendiak, #natura, #bidaiak, #kultura, #abentura... Aran Atxa Leturiari (Oñati, 1960) buruzko edozein artikulutan agertu beharreko tag edo hitz gakoetako batzuk dira, munduko hainbat herrialdetan ibilia baita, mendikatetik mendikatera jauzi eginez. #Bakartia, #apala edo #idazlea bezalako etiketak ere jar genitzake, zortzi bidaia-liburu eta poema liburu bi argitaratu baititu. Bere bi pasioak, mendiak eta bidaiak uztartu dituen emakumea.

Oso gazterik hasi zen mendi zaletzen, bere anaia Ja-biren eskutik, batez ere. Hamalau urte betetzerako, 2.000 metroko bere aurreneko tontorrak eginak zituen Pirinioetan, eta hamasei urterekin igo zuen *Midi d'Ossau* (2.884m.). Bere lehen 3.000koa Austrian zapaldu zuen, *Interrail*-a tarteko Europan barrena egindako bidaia baliatuz. Ondoren, 4.000koak iritsi ziren Alpeetan, *Elbrus* (5.642m.) Kaukason (Europako tontorrik altuena), eta lehenengo 6.000koa (*Guallatiri* sumendia, 6.071m.) Txilen igo zuen, bakarrik. Gerora, sei milako beste zazpi gailur ere zapaldu zituen Himalaian, ia denak bakarrik. 7.000ko bat igotzen ere saiatu zen, Madrilgo espedizio batekin, baina oinarritzko kanpalekura iritsi orduko ikusi zuen elur asko zegoela, arriskutsu zegoela, eta bertan behera utzi zuen ahalegina. Inguruan zeuden beste 6.000ko batzuk egiteko baliatu zuen aukera. Bere espedizio-kideek ere ez zuten gailurrera iristerik lortu. Orduan ikusi zuen Aranez, horixe izango zela bere sabaia.

"Mendizale bezala, beti da pozgarria tontorrera iristea, eta, poliki poliki, altuerak gainditzen joatea, ikusita, gainera, nire gorputza ondo egokitzen zela baldintza horietara". Baina ez zen altuerarekin itsutzen, ez eta gailurrera derrigorrez iritsi beharrekin ere. "Konturatu nintzen, nik bilatzen nuena ez zela mendi batean gora eta behera ibiltzea; behe kanpalekutik lehenengora, gero bigarrenera, berriro behera... baina denbora guztian mendi berean zentratuta. Gehiago interesatzen zitzaidan bide berriak egitea, bailara ezberdinak lotzea, paisaiak deskubritzea, mendi aldeko herrixkak eta bizimoduak

ezagutzea... eta, aukera egonez gero, bidean tontorren bat edo beste igotzea. Baina beti saiatzen naiz masifikatu gabeko leku lasaietan ibiltzen".

Garbi dagoena da, Aranez pasioz bizi duela mendia eta natura, oro har, eta bost kontinenteetan zehar egin dituen bidaia guztietan mendia egon dela beti presente. "Men-

>> (12. orrian jarraitzen du)

**"Mendia eta naturarekiko
kontaktua oso garrantzitsua
izan da nire bizitzan.
Nire burua hobeto ezagutzen
lagundu dit"**

CORTABARRIA

INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

Etxe eta lokalen gestio orokorrak

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haziendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behea • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@teleline.es

GARIKETA
ADMINISTRAZIOA
ETA KONPONKETAK

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkarten administrazioa
- Konponketa orokorrak



653 70 45 47

Oñati



BIAFO HISPAR (PAKISTAN).



EVEREST (HIMALAYA).



GINEA BERRIA.



K2 ETA BROAD PEAK.



ISLAMABAD.

ETIOPIA.



LABUCHE KANG TIBET.



GINEA BERRIA.



OJOS DEL SALADO (TXILE).

Urte askotan zuekin

© 688 764 299

Portu Kale 5 • Tel: 943 78 12 65 • www.mapfre.es



Jaione San Miguel Ugarte

MAPFRE
OÑATI



dia eta naturarekiko kontak-tua oso garrantzitsua izan da nre bizitzan. Nire burua aurkitu eta hobeto ezagutzen lagundu dit".

KULTURA EZBERDINAK

Baina ez bakarrik mendia eta natura. Aranek beti izan du jakinmin berezia bisitatu dituen herrietako kultura ezberdinen inguruan, eta beti saiatu da hauetatik ikasten. Etiopia, Argelia, Cabo Verde, Kanada, Estau Batuak, Costa Rica, Peru, Ekuador, Txile, Mongolia, India, Nepal, Pakistan, Tibet, Guinea Berria, Borneo edo Zelanda Berria dira bisitatu dituen herrietako batzuk, Europako beste askorekin batera. Oroitzapen berezia gordetzen du Guinea Berrira (Malaysia) egindakotik. "Oso harrigarria izan zen. 1980ko hamarkada zen, eta haien lanabesak, arropak, ohiturak ikusita, harri-aroan zeudela ematen zuen. Oso inpaktantea izan zen. Bai guretzat, eta baita haientzat ere, noski".

Indiak maiteminduta dauka, aitortzen du Aranek. "Batez ere iparraldean egon naiz, 'Tibet txikia' bezala ezagutzen den *Ladakh* eskualdean, eta oso aberasgarria izan da pertsonalki. Budismoak asko erakartzen nau". Lauzpabost alditan egon naiz, baina itzultzeko gogoz nago". Nepal eta Mongolia ere asko gustatu zitzaizkion, jendea oso atsegina da, eta baita Tibet ere, baina Txinarekiko menpekotasunak zapora gazia utzi zion. Edozein modutan, Aranek oso garbi dauka: "bidaia guztietatik ikasten da,



Bidaia eta poesia liburuak

Gaztetandik gustatu izan zaio idaztea Arani; poemak, ipuinak... nobelaren bat ere ba omen du gordeta. Eta argazkizaletasuna ere mendiarekin bateratsu deskubritu zuen.

Egindako bidaia bakoitzari buruzko informazio eta argazki asko gordetzen dituen horietakoa da eta, hala, 2015ean *Chiado* argitaletxearekin harremanetan jarri zen, eduki horiek bildu eta liburu bat argitaratzeko asmotan, baina edukiaren bolumena ikusita, zortzi liburukitan banatzea erabaki zuten *Paseando mi soledad por las montañas* izenburupean.

Bisitatuak herrialdeei buruzko informazioa eta bidaian izandako bizipenak eta gogoetak jasotzen ditu liburuetan. Bi olerki liburu ere (*Poemas posesos de poliorama* eta *Polinaturama*) argitaletxe berarekin.

eta leku guztiek dute bere xarma; batzuk paisaia, beste batzuk kultura... Ezingo nuke bat aukeratu".

Askotan bakarrik bidaiatu izan du Aranek, eta, askotan, tokian tokiko jendearengana hurbiltzeko bidea erraztu diola uste du. Kulturalki oso ezberdinak diren herrialdeetan hango gidari bat kontratatu izan du, etxetik prest zeraman bidaia-orria kontrastatu eta osatzeko. "Etiopia bezalako herrietan, adibidez, bertako gidari baten laguntza oso garrantzitsua da hango jendearengana hurbiltzeko. Asko errazten ditu gauzak. Beste herrialde batzuetan, Costa Rican, esaterako, ibilaldi jakin batzuk egiteko eta bertako fauna hobeto ezagutzeko kontratatu izan ditut gidariak".

Bisitatu nahi lituzkeen herrialdeen zerrenda luzean jasotako izen asko ezabatuta ditu Aranek, baina luzea omen da oraindik zerrenda, eta ahal duen bitartean bidaiatzen jarraitzeko asmoa du Aranek. Mendian ez dabil lehengo martxan, jakina, belaunek ez dute barkatzen, eta horri esker, txikitako zaletasun bat berreskuratu du azkenaldian: bizikleta. Mendikoa, jakina, nola bestela. Eta oinez ez bada, bizikletan, ia egunero egiten du mendi buelta, ezin baita bera gabe bizi.

Gehienok bezala, hurrengo bidaia egiteko falta diren egunak zenbatzen hasita dago Aran. Covid-aren baimenarekin, Australia eta *Kamtxatka* penintsula (Errusia) daude bere hurrengo destinoen artean. Bidaia on.

 **Mekalki**
S. Coop. mekanizatuak
Mekanizazio zerbitzu integralak

Tel.: 943 78 19 11 | www.mekalki.es



SUKALDARIA BEHAR DUGU
[JARDUNALDI ERDIKO KONTRATUA]

Interesatuak
tabernan galdetu

Gure beharra baduzu, ondo-ondoan gaituzu.

Hain ondo zaindu nahi
zaituztegu,
**Arrasate/
Mondragonen**
bertan ere artuko zaitu
Zuatzu Klinikako
espezialista-taldeak,
hogei urtetik gorako
esperientzia duenak.

Ginekologia eta obstetrizia.
Jaio aurreko diagnostikoa.
Bularretako patologia.
Laguntza bidezko ugalketa.



ZUATZU
KLINIKA

Nafarroa Etorbidea, 4 (behea) . 20500 Arrasate/Mondragon
943 792 018 . www.clinicazuatzu.com

GIZARTE LARRIALDIETARAKO DIRULAGUNTZAK

OÑATIN 205.400 € BIDERATUKO DIRA AURTEN LAGUNTZA HAUETARA

Premia puntualei aurre egiteko ematen diren dirulaguntzak dira

Urtean 13.668 euro arteko diru sarrerak edo 15.682 euro arteko pentsioa duten herritarrek eska ditzakete laguntza hauek. Eskatzaileek dituzten ondasunak (ohiko etxebizitzatik aparte) ere hartzen dira kontuan.

Oñatiko udalak urteak daramatza hainbat dirulaguntza kudeatzen Gizarte Zerbitzuen departamentuaren bitartez. Herrian egoera ahulean bizi diren herritarrengana iritsi, hauen bizi-baldintzak eta bizi-kalitatea hobetu, eta gizarte-bazterkeria egoerak saihestea eta prekarietate egoerak arintzea da laguntza horien xedea. Horien artean daude **Gizarte Larrialdietarako Dirulaguntzak** (GLL) izenez ezagutzen ditugun prestazioak.

ZER DIRA GLL-ak

Premia puntualei, batez ere etxebizitzako gastuei (alokairua, hipoteka, argia, gasa, aseguruua, konponketak, linea zuriko etxe-tresnak eta altzariak...) eta norberaren beharrezane aurre egiteko ematen diren laguntza puntualak dira GLLak, eta onuradunak edo bere bizi-kidetzaren unitateko kideek jaso ditzaketen beste edozein prestazioren ordekoa edo osagarria izan daiteke.

Gizarte Larrialdietarako Laguntzak Eusko Jaurlaritzaren eskumenekoak

DIRULAGUNTZA JASOTZEKO BALDINTZA EKONOMIKOAK

BIZIKIDETZA UNITATE OROKORRA	
BIZIKIDE UNITATE KOPURUA	GEHIENEZKO DIRU SARRERA URTEAN (*)
1	13.668,66 €
2	17.551,98 €
3 edo gehiago	19.415,88 €

(*) Lan diru-sarrerak baldin badira, ez dira %100 kontuan hartzen. Kopuru hauen inguruan baldin bazaude, gerturatu galdetzeraz

PENTSIODUNAK	
BIZIKIDE UNITATE KOPURUA	GEHIENEZKO DIRU SARRERA URTEAN
1	15.682,68 €
2	19.603,44 €
3 edo gehiago	21.171,78 €

Eskatzaileek dituzten ondasunak (ohiko etxebizitzatik aparte) ere hartzen dira kontuan.



Catalana Occidente

Mikel Egaña Urrutia
Aseguruak

Eskatu aurrekontua kompromezu gabe:

- ✓ Heriotza
- ✓ Autoak
- ✓ Bizitza

- ✓ Istripuak
- ✓ Ontziak
- ✓ Osasuna

- ✓ Etxebizitza
- ✓ Aurrezkia
- ✓ Laborantza

Helbidea: Motxon 5, behea
 638 16 79 84
 mikel.egana@agentes.catalanaoccidente.com




PINTURAS
URBIA
MARGOAK

Arantzazuko Ama, 19A - 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15

93 FAMILIAK jaso zituzten GLLak iaz Oñatin

Ondoko grafikan ikus daitekeen moduan, iaz 93 familiak jaso zituzten GLLak Oñatin, 2019an baino %26 gehiagok. Profilari dagokionez, eskaeren titularren %60 emakumezkoak izan ziren, eta adinari dagokionez, 30-49 urte artekoak dira gehienak (%58), eta 50-59 urte artekoak jarraian. Eskatzaileen %58k seme-alabak dituzte.



2020an Oñatin GLLak jaso zituzten herritarren kopuruak sexuaren arabera

dira, baina tokian tokiko udalek kudeatzen dituzte.

GLL-ak JASOTZEKO BALDINTZAK

Gizarte Larrialdietarako Laguntzak jaso ahal izateko bete beharreko baldintza orokorrak hiru dira:

1. Oñatin erroldatuta egotea eta bizi-tzea, edo Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udaleritan erroldatuta egotea eskabidea aurkeztu baino sei hilabete lehenagotik, gutxienez.
2. 18 urte beteta edukitzea.
3. Eskabidea aurkeztu baino urtebete lehenago, gutxienez, sortutako familia-unitate bat izatea.

Baldintza orokor horiez gain, baldintza ekonomikoak ere badaude. Ezkerreko taulan ikus daitezke bizikide-unitateko kide guztien artean gehienez eduki ahal izango dituzten diru-sarrerak, urtean, GLLak jaso ahal izateko. Horren arabera,

1.120 eurotik beherako (14 ordainsari) pentsioa duen edozein herritarrek du GLL-ak eskuratzeko eskubidea, baldin eta aparteko ondarerik (dirua, tituluak, balioak...) eta ondasun higiezinik (ohiko etxebizitza, garajea eta trastelekuaz aparte) ez badauka.

Eskatzaileak dituen diru-sarrera eta ondasunen arabera izango da diru-laguntza, Eusko Jaurlaritzak finkatuta dituen taulen arabera.

OÑATIN 205.400 EURO

Gizarte Larrialdietarako Dirulaguntzak Eusko Jaurlaritzaren eskumenekoak dira, baina handik iristen diren diru baliabideak ez dira nahikoak izaten Oñatiko biztanleen beharrei erantzuteko, eta, beraz, Oñatiko udalak osatu behar izaten ditu diru poltsa hori, inor bazterrean ez uzteko. Iaz, adibidez, Covid-a tarteko, nabarmen gora egin zuten eskaerak, eta 192.000 eurotik gora bideratu ziren

Oñatin GLL laguntzetara (aurreikusita zegoena baino 20.000 euro gehiago), eta kopuru osoaren %42 jarri zuen udalak.

Aurten, eskaerak eta beharrak behera egingo ez dutela aurreikusita, guztira, udalak eta Jaurlaritzak ipinitakoa batuz, 205.400 euro bideratuko dira GLL-etara.

Zabalik dago jada eskaerak aurkezteko epea (azaroaren 29ra arte egongo da zabalik) eta, beraz, laguntza hauen (edo beste edozein laguntzaren) beharrea dauden herritarrei gizarte zerbitzuetara hurbiltzeko gonbitea luzatzen die udalak. "Jakin badakigu laguntza hauek jasotzeko baldintzak betetzen dituen baina jasotzen ez duen jendea egon badagoela, bai pentsiodunen artean, eta baita familia gazteagoetan ere. Eta askotan ezjakintasunagatik izaten da. Beraz, gogorazi nahi nuke udaleko gizarte zerbitzuen bulegoak herritar guztientzat irekita daudela, eta bertako langileak informazioa emateko eta prozesuan laguntzeko prest daudela" adierazi du Susana Altuna zinegotziak.

Informazio gehiago udal gizarte zerbitzuetan: **943037700 / ongizatea@onati.eus**



Ramon Irizar kalea, 3
Tel: 943 71 61 60

✉ etxian@etxian.net
www.etxian.net



Mota guztietako zurgintza-lanak

Garibai 11 • Telf.: 943 78 14 54 • garibai@garibai-aroztegia.com
www.garibai-aroztegia.com



Udaleko eta Mondragon Team Academy-ko ordezkariak programaren aurkepenean

OÑATIN ELKARREKIN EKIN

Ekintzailtza sustatzea helburu duen programak komertzioen digitalizazioan ipiniko du fokua aurten

Udalak eta Mondragon Unibertsitateko MTAk (Mondragon Team Academy) elkarlanean **Oñatin Elkarrekin Ekin** programaren 4. edizioa jarriko dute abian apirilean. Aurrekoetan bezala, ekintzailtza sustatzea izango da programaren helburua, eta, beraz, negozio ideiarene bat buruan darabilten pertsona guztiei zuzenduta dago. Baina, horrez gain, aurten ahalegin berezia egin nahi da komertzio txikiek dituzten beharrak aztertu eta irtenbideak eskaintzeko, eta, horregatik, bereziki merkataritza eta zerbitzu sektoreko komertzio, autonomo eta enpresak txikiak animatu nahi dituzte Elkarrekin Ekin programan parte hartzera.

Gogoratu, udalak pasa den hilabetean aurkeztu zuela Oñatiko Merkataritza Biziberritzeko Plana, eta, ildo horretan, ahalegin berezia egingo da plan horretan jasotzen diren zenbait ekintza edo ardatz Elkarrekin Ekin programan lantzeko; hala nola, digitalizazioa, marketin digitala, negozioen serbituzazioa (balio erantsia emateko aukerak), bezeroen fidelizazio tresnak, saltoki eta enpresen

Bereziki, merkataritza eta zerbitzu sektoreko komertzio, autonomo eta enpresa txikiak animatu nahi dituzte programan parte hartzera

arteko lankidetzara...

Elkarrekin Ekin programak hiru fase izango ditu. Aurrenekoa, **analisi fasea** izango da, eta COVIDak eragindako ziurgabetasun egoera honetan dauden beharrak eta aukera berriak aztertuko dira.

Ondoren, **Ideazio fasea** etorriko da, hau da, ideia eta aukera berrien bideragarritasuna eta martxan jartzeko aukera aztertzeko unea. Eta hirugarren faseak **aholkularitza eta elkarlana** izango ditu oinarri; hau da, parte hartzaileek banakako aholkularitza jasoko dute eta MTA sarearekin elkarlanean jarduteko aukera izango dute. Enpresagintza fakultateko LEINN graduari (Lidergoia eta Ekintzailtza) badira enpresa ezberdinei digitalizazio prozesuan laguntzen ari diren ikasleak, eta, beraz, Elkarrekin Ekin programaren baitan elkarlanerako aukera interesgarriak sor daitezke tokiko komertzioari urrats bat ematen laguntzeko.

Aste Santu ostean jarriko da martxan. Informazioa eta izen-ematea: udaleko Sozioekonomia saila (943 003 198 / enplegu@onati.eus).

Programan izena emateko: 943 00 31 98 / enplegu@onati.eus



LANGABETUAK KONTRATATZEKO DIRULAGUNTZAK

Langabetuak kontratatzen dituzten Oñatiko enpresa txiki eta ertainei (50 langile baino gutxiago) zuzendutako dirulaguntza deialdia egin du udalak.

Kontratatzen diren pertsonak baldintza hauek bete behar dituzte: **a)** 6 hilabeteko antzintasuna Oñatiko erroldan; **b)** Langabezia egoeran eta Lanbiden izena emanda egotea; **c)** Ez da diruz lagunduko kontratatutako pertsona enpresaburuaren edo enpresaren kontrola duen inoren senidea baldin bada.

Kontratuak baldintza hauek bete beharko ditu: **a)** Gutxienez 6 hileko iraupena izan beharko du, eta edozein kontratazio modalitatekoa izan daiteke, prestakuntzako izan ezik; **b)** Lanaldi osokoa edo partzialekoa izan daiteke, baina lanaldiaren %50ekoa, gutxienez; **c)** Kontratazioak enplegu sorrera garbia ekarri beharko du berekin; **d)** 2020ko uztailaren 1aeta 2021eko ekainaren 30a bitartean hasitako kontratua izan beharko da.

Lanaldi osoko eta 6 hilabete edo luzeagoko kontratu bakoitzeko 1.000 euroko laguntza emango da. Kontratatutakoa emakumea bada, 1.300 euro. Denbora partzialeko kontratuak direnean, lanaldiaren edo lan egindako denboraren arabera izango da dirulaguntza. Kontratatutako pertsonak Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta jasotzen badu, 35 urtetik beherakoa edo 55 urtetik gorakoa bada, edo epe luzeko langabea bada, dirulaguntza %30 gehituko da. Eskerak aurkezteko epea: azaroak 30.

Informazio gehiago: 943 003 198 / enplegu@onati.eus.

ENPRESA BERRIAK SUSTATZEKO DIRULAGUNTZAK

Enplegua sustatzeko helburuarekin, enpresa berriak sortzen dituzten herritarrei zuzendutako deialdia egin du udalak.

Dirulaguntzak eskuratu ahal izateko baldintzak hauek dira: **a)** Enpresa jarduera berria alta ematen den momentuan sustatzaileak Oñatin erroldatuta egotea, gutxienez sei hilabeteko antzintasunarekin; **b)** Sortzen den enpresa berriak Oñatin izan beharko du egoitza soziala eta fiskala, baita lantokia ere; **c)** Enpresa jarduera berriaren antzintasuna gehienez urte batekoa izatea.

Laguntza mota eta zenbatekoari dagokionez, enpresaren sustatzaileak 1.500 euroko laguntza jasoko du sorturiko lanpostu bakoitzeko, eta 3.000 eurokoa, lehen sektoreko aktibitatea bada. Informazio gehiago: 943 003 198 / enplegu@onati.eus. Eskerak egiteko epea: azaroak 30.

Turismo Plan Estrategikoa eguneratzeko prozesuan EKINTZA PLANA diseinatzeari ekin dio udalak




Udaleko ordezkariak eta turismo sektoreko zenbait eragile, ekintza planeko aurreneko lan saioan

Oñatiko Turismo Plan Estrategikoa eguneratzeari ekin zion udalak iaz, Lurdes Romano oñatiarrak zuzentzen duen *Beinke* enpresaren gidaritzapean, eta hasierako diagnostikoa egin ostean, hurrengo lau urteetarako (2021-2025) **ekintza plana** diseinatzeari ekin dio orain. *Beinke* enpresak berak gidatuko du bigarren fase hau ere, sektoreko eragile publiko eta pribatuak (udala, ostatuak, jatetxeak, zerbitzu enpresak...) iritzi eta ikuspuntuak kontuan hartuz.

Turismoa garatzeko plan operatibo eta errealista egitea da helburua, adostua eta partekatua, beharrezkoak jotzen diren beste administrazioak ere inplikatur.

Hainbat saio egingo dira, diagnostiko fasean identifikatutako 64 ekintza proposamenen lehentasun maila adosteko helburuarekin. Ekaina alderako ekintza plana prest edukitzea da asmoa.




COINBROKER
OÑATI
ASEGURU ARTEKARITZA
CORREDURIA DE SEGUROS

ASEGURU AHOLKULARITZA ESPEZIALIZATUA

📍 ARANTZAZUKO AMA KALEA 9, BEHEA

☎ 943 089 006 📞 688 774 531 - WHATSAPP

✉ OINATI@COINBROKER.EUS





AUZO-BIDEETAKO KONPONKETA LANAK

Auzo-bideak konpontzeko planaren baitan, 2020rako aurreikusitako lanak burutu ostean kontu-sailean zegoen gerakinarekin beste konponketa lan batzuk egitea onartu zuen udaleko Zerbitzuak eta Landa Garapena batzordeak. Alde batetik, Urrexola auzorako bidean beheara jausitako errepide tartek konpondu dira, 24.138 euroko aurrekontuarekin. Bestalde, Garaiko baserrirako bidean euri-urak hartzeko lanak egin dira (2.966 €).

Araotzen, seinalizatutako guneetan bakarrik aparkatu ahal izango da

DEBEKUA ADIERAZTEN DUTEN SEINALEAK IPINI DITU UDALAK



Argazkikoak bezalako seinaleak ipini ditu udalak Jaturabeko zubian eta Araotzeko auzune ezberdinetarako bidegurutzeetan



Maña auzunerako bidegurutzean 20 bat autorentzako aparkalekua egokitu du udalak

Pandemiak eragindako itxialdi perimetralak barne-turismoaren gorakada ekarri du, eta horrek auto asko eraman ditu Araotzera, besteak beste. Ondorioz, tarteka arazoak sortu izan dira errepide bazterretan gaizki aparkatutako autoen ondorioz: elurra kentzeko makinak edo larrialdi zerbitzuak pasatzeko trabak, auzotarren zelaietarako sarrerak oztopatuta...

Araotzarren kexak udaletxera ere iritsi dira, eta arazoari irtenbidea eman asmoz, hainbat bide-seinale ipini ditu udalak baimendutako guneetan bakarrik aparkatu daitekeela ohartaraziz. Jaturabeko zubian eta auzune ezberdinetarako bidegurutzeetan ipini dira seinaleak. Gogoratu, Jaturabeko eta Elizondoko aparkalekuez gain, Mañarako bidegurutzean 20 bat autorentzako lekua egokitu dela.

Bestalde, Arantzazuko autobus zerbitzua ere erabili ahal izango da Araotzera joateko, aurrez **900 12 14 00** zenbakira deituta.

AUTOKARABANEK aparkaleku mugatua izango dute Arantzazun



Martxoaren 31 ezkerotik 5 metro edo luzera handiagoko ibilgailuentzako aparkalekua mugatuta dago Arantzazun. Askotariko bisitarien elkarbizitza samurtzeko asmoz hartu du erabaki hori udalak. Oraingoan, 5 metrotik gorako ibilgailuentzako 26 aparkaleku egokitu dira beheko mailetakoko parkinetan, goiko irudiak erakusten duen moduan. Pazko Aste ondoren baloratuko da nahikoa diren ala gehiago egokitu behar diren. Gogoratu, dena den, San Martinen eta Enpresagintza fakultatearen ondoko parkinean ere badagoela autokarabanak aparkatzeko tokia. Gogoratu, gainera, Aste Santuko jai egunetan Arantzazuko autobusa orduro (7:30-18:30) irtengo dela Oñatitik, eta beharrezkoa bada, udalak bigarren autobusa jarriko duela.

smk
san miguel kooperatiba
943 781 217
kale barria 8 - 20560 oñati
www.sanmiguel.coop

EGUR-LAN
AROTEGIA
LIMABAR S.A.L.
BEREZAIO INDUSTRIALDEA 20560 OÑATI (GIPUZKOA)
TEL/FAXA: 943 78 14 59 limabarsal@gmail.com
www.egur-lan.es

ESKUALDEKO TRANTSIZIO ENERGETIKORAKO GAKOAK

Erronka nagusiak zehaztu ditu Debagoiena 2030 ekimenak

Eskualdearen garapen komunitarioan sakonduz, 2050. urterako adimentsua, inklusiboa eta klimatikoki neutroa izango den Debagoiena bateranzko eraldaketa bultzatzea helburu duen Debagoiena 2030 (D2030) ekimenak trantsizio energetikoan eragiteko gakoak identifikatu ditu. Gure eskualdeko eremu urbanoko energia ereduaren analisia egin ondoren, iraunkorra, berriztagarria eta inklusiboa izango den eredu energetikoa sustatzeko helburuarekin hiru azpi erronka identifikatu dituzte:

- 1.- **Eraikinen eraberritze energetikoa sustatzea.**
- 2.- **Energia berriztagarrien sorkuntza eta kontsumoa sustatzea, burujabetza energetikoa ipar izanda, herritarrak energia sorkuntza berriztagarrian inplikatzeko bultzatzea.**
- 3.- **Trantsizio energetikoaren inguruan sor daitezkeen jarduera ekonomiko berriak sustatzea.**

Erronka horiei erantzuteko lau oinarri identifikatu dituzte: herritarren sentsibilizazioa lantzea; eredu kolaboratiboan jardutea; Debagoiengan jadanik badauden egitura eta dinamikak indartzea eta soluzio berrien laborategi baten bitartez, erronkei erantzuna emango dien soluzioak identifikatu eta prototipatzea.

D2030 ekimenak 50 eragilerekin (erakunde publikoak, enpresa pribatuak, kooperatibak, hezkuntza eragileak eta energiaren sektorean diharduten profesionalak) partekatu eta osatu du analisia, eta lanketa fase hau bukatuta, esku-hartze fasera pasatzea izango da hurrengo urratsa.



Madalenako bidegorria prest

Goiko argazkiak erakusten duen moduan, prest eta zabalik dago jada Santxolopeztegi eta Madalenako industrialdea lotzen dituen bidegorri berria. Industriaguneko enpresek egindako eskariari erantzunez egokitu du udalak bide hau, sasiak hartuta zegoen aspaldiko bidezidor bat aprobetxatuz. Madalenako ermitara doan harrizko bidean hasten da bidea, eta Fagor Industrialeko aparkalekuan amaitzen. Ehun metro eskas, denera. Bost argi poste ere ipini dituzte bidean. Echaide enpresak egin ditu lanak 111.444 euroko aurrekontuarekin.



ENGLISH SUMMER CAMPS IN OÑATI

INGELESEKO UDALEKUAK OÑATIN

Adina: from 5 to 11 years old
Ordutegia: from 9:30 a.m to 13:00 p.m
Iraupena: 2-4 weeks
Data: June 28th - July 23rd
Haurrak hartzeko zerbitzua: 8:30 a.m - 9:30 a.m
INGELESA ekintza hauen bitartez: Irteerak, ordenagailu jokoak, Master Chef, eskulan tailerrak (barruan eta kanpoan), jolasak eta kirolak.



www.mondragonlingua.com

mondragon Lingua

OÑATI
Moxón, 7. Tel.- 943716000
mloinati@mondragonlingua.com



ARDURAZ jokatu eta GOZATU udaberria Oñatin

Gainean ditugun Aste Santuko jai egunei begira, eskaintza zabala prestatu du Oñatiko Turismo sailak, naturaz, ondareaz eta gastronomiaz goza dezagun. Gogoratu, bisitak aurrez erreserbatzea komeni dela.

Arrikruz-Oñatiko kobak

Egunero zabalik 9:30 - 14:00 eta 15:30 - 17:30
Erreserbak: 943 08 20 00 / arrikruz@onati.eus

Arantzazu Parketxea

Aizkorri-Aratz natur parkearen interpretazio zentroa. Mendi ibilaldiak ere antolatzen dituzte. Orduetgia: 10:00-14:00. Informazioa eta erreserbak: 943782894 / 699335183 / arantzazu@gipuzkoanatura.eus

Arantzazuko Santutegia

Bisita gidatuak familian. Euskal artisten lanak ezagutzeko aukera, 10:30etan (euskaraz) eta 12:30etan (gaztelaraz). Erreserbak: 943796463 / infoturismo@debagoiena.eus

Pottokaleku

Euskal pottoka bertatik bertara ezagutzeko aukera. Erreserbak: 670274461 / jelorzarza@hotmail.com / www.pottokaleku.com

Herriguneko ondarea

OÑATIKO ALTXORRAK

BISITA GIDATUAK TURISMO BULEGOAREN ESKUTIK
Ostiral Santuan izan ezik, turismo bulegoa zabalik egongo da Aste Santuko jai egunetan (10:00-14:00 / 16:00-18:00). Oñatiko altxorak (Sancti Spiritus unibertsitatea, San Migel parrokia...) ezagutzeko bisita gidatuak 13:00 eta 17:00etan. Erreserbak: 943783453 / turismo@onati.eus

TXOKOLATEIXIA

Txokolatearen interpretazio zentroa. Orduetgia: 11:00-13:00. Bisita gidatuak 17:00etan. Erreserbak: 605763595 / txokolateixia@hotmail.com.

DIRULAGUNTZA DEIALDIAK

• Errotuluak, irudi korporatiboa eta web gunea euskaraz jartzeko dirulaguntzak

Helbide fiskala eta jarduera Oñatin duten entitateei (50 langiletik behera) zuzendutako laguntzak. 180 eta 450 euro arteko laguntzak. Epea: abenduak 31. Informazioa, udaleko Euskara departamentuan.

• Adikzio mota desberdinen tratamenduan dauden pertsonentzako dirulaguntzak

Adikzio mota ezberdinak tratatzeko Oñatitik kanpora joan behar duten pertsonen eta laguntzen dieten senide edo lagunen garraio gastuak arintzeko dirulaguntza. Epea: azaorak 30. Informazio gehiago, udaleko gizarte zerbitzuetan (943037700).

• Kultur elkarleen jarduna eta sormen lanak sustatzeko dirulaguntzak

kultur proiektuak eta programak gauzatzen laguntzera (66.000€) eta irabazi asmorik gabeko talde edo norbanakoen sormen lanak sustatzera (14.000€) bideratuko ditu udalak. Deialdia Gipuzkoako Aldizkarian argitaratu ondoren hilabeteko epea egongo da eskaerak aurkezteko.

• Gazteen emantzipaziorako dirulaguntzak

Alokairuan bizi diren 18 eta 35 urte arteko gazteei zuzenduta, 65.000 euro bideratuko ditu udalak alokairu gastuei aurre egiten laguntzeko. Oñatin erroldatuta egon behar da, eta urteko diru sarrera gordinak 28.000 eurotik behera egon behar dira. Epea: urriak 15.

• Gazte elkarteak eta gazteen sormen lanak sustatzeko dirulaguntzak

Hiru laguntza lerro bereizten dira: kultur sormena eta hedapena; urteko programaketa eta elkarleen sustapena; eta ezohiko jarduerak. Irabazi asmorik gabeko gazte talde, norbanako edota haurrei zuzendutako programak sustatzen dituzten elkartei zuzenduta dago deialdia. Epea: apirilak 21.

DEIALDIAK

• Bake epailea eta haren ordezkoa hautatzeko deialdia

Bake epailearen eta bere ordezkoren lau urteko izendapenak agortu direnez, izendapen berriak egiteko prozesua abian jarri du udalak. Euskaraz eta gaztelaniaz, idatziz zein ahoz lan egiteko gai den eta Oñatin erroldatutako 18 urtetik gorako edozein herritar izan daiteke bake epaile. Deialdia GAOn argitaratu ondorengo 20 lanegunetako epean aurkeztu behar dira instantziak udaletxeko HAZ bulegoan.



M^a del Mar Urrutia Negueruela

Motxon Kalea 5 behea
Tel./Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

HARALD LINDER

ETXEETAN ERA GUZTIETAKO KONPONKETAK
PERSIANAK, LENOAK, LUR FLOTANTEAK, ARGIAK, PINTURA LANAK...



DISEINATZAILE ETA MONTATZAILEA

SUKALDEAK, KOMUNAK eta ASKOZ GEHIAGO

OLAKUA 12 B 4 ezk. - 20560 OÑATI - GIPUZKOA

695 78 91 04 - 943 04 47 77

Artzain makila eta diploma jaso dute Gomiztegiko eskolako 13 ikaslek

Martxoaren 12an egin zen Gomiztegiko Artzain Eskolako ikasturte amaierako ekitaldia, eta ohikoa den bezala, diploma eta makila jaso zuten formazioa osatu duten 13 lagunek (10 mutil eta 3 emakume).

Jatorriari dagokionez, 5 bizkaitar, 4 gipuzkoar eta estatuko beste erkidego batzuetako 4 ikasle aritu dira aurtan. Dagoeneko 24 urteko ibilbidea egin du Gomiztegiko eskolak artzaintza biziberritu eta modernizatzeke ahaleginean, eta dagoeneko 297 artzain gazte trebatu ditu. Hauetako erdiak baino gehiagok artalde propioa dute egun.

AHUNTZ USTIATEGIA

Urtzi Etxeberria oñatiarra



Urtzi Etxeberria oñatiarra artzain makila jasotzen

izan da ikasleetako bat. Helburu jakin barik, naturarekiko harremanean proiekturen bat garatzeko aukeraren bila eman zuen izena Gomiztegin, eta oso gustura dago bertan ikusi eta ikasitakoarekin.

Ikasturtean zehar ahuntz ustiategi bat jartzeko aukerari forma ematen joan da, eta, zaila bada ere, hori au-

rerra ateratzen saiatu nahi duela esan digu. "Esneterako egokia den ahuntz-taldea ipini nahi nuke, 80 bat buru, eta esnearekin gazta, jogurta eta beste esneki batzuk egitea. Nire arazo handiena da, terrenorik ez daukadala. Ari naiz, hutsik edo erabilera barik ikusten ditudan lursailen inguruan galdezka, baina ikusiko da".

Nekazaritzako ibilgailuen azterketa teknikoak Oñatin



Apirilaren 15ean eta 19an egingo dira nekazaritzeko ibilgailuen azterketa teknikoak Oñatin. Ohi bezala, Bergarako IAT tailerreko unitate mugikorra etorriko da Oñatira. Hiru leku eta ordu ezberdinetan egin ahal izango da ibilgailuen azterketa:

• APIRILAK 15

Urtiagaineko aparkalekuan, 9:00
Oñati garajejan, 13:00

• APIRILAK 19

Olabarrietan, 9:00



Txiki -Txoko Haurreskola (0-2 urte)



Elkarrekin bizitzen ikasiz



OLAKUA 19 | Telf.: 943 71 64 05 | oinati.oinati@haurreskolak.eus




ANIMATU BISITATZERA!
(aurrez hitzordua hartu behar da)

Matrikula irekita apirilaren 12tik 21era



Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorlerraren izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

Bidaurreta Dorrea z/g
20560 OÑATI
Tel.: 943 78 20 72
kontzejupetik@onati.eus



Oñatiko Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

KONTZEJUPETIK

Argitaratzailea:

Oñatiko Udala

Zuzendaria:

Iñigo Arregi

Publizitatea:

Aratz Losada

Diseinua eta Maketazioa:

Aratz Losada

Kolaboratzaileak:

Jerardo Elortza eta Euskaltegia

Inprimategia:

Gertu

Tirada:

5.500 ale

Lege gordailua:

SS-357/91

Posta-e:

kontzejupetik@onati.eus

Publizitatea:

publi@onati.eus

Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa
20560 Oñati (Gipuzkoa)
Tel.: 943 78 20 72

Eraikin eta lokaletako garbitzaileen grebaren harira

Alberto Ferreira (ELA sindikatoa)

ELA, LAB eta UGT sindikatoek deituta, Gipuzkoako eraikin eta lokaletako garbitzaileek greba egin dute martxoaren 15, 16, 17 eta 18an. Lau greba egun hauen bidez soldata-arrakalarekin amaitzeko eta negoziazio honi merezi den seriotasunez heltzeko ordua dela aldarrikatu nahi izan dute. Gogoratu dute kale-garbitzuntzako gizonek beraiek baino 5.000 euro gehiago irabazten dutela.

Izan ere, %28ko aldea dago kale garbiketako eta eraikin eta lokalen garbiketako langileen artean, hau da, gizon eta emakumeen artean. Lehenak urtean 23.183 euro jasotzen ditu; bigarrenak, 17.784. Hau da, 5.401 euro. Egund, 6.500 lagun aritzen dira Gipuzkoako garbitzuntzako sektorean eraikinak eta lokalak garbitzen; horietatik 1.500ek baino gehiagok enpresa ituna dute. Horietatik % 80 emakumeak dira, eta kontratu partzialak dituzte.

Pandemiak iraun duen bitartean, emakume horiek lantegiak, egoitzak, osasun-klinika pribatuak, supermerkatuak, garraio publikoa... garbitzen aritu dira, gizarteak pandemia horretatik ahalik eta modu seguruenean biziraun zezan. Ondo dakizuenez, pandemiak iraun bitartean ez da garbiketa-jarduerak gelditu, indartu baizik. Zergatik? Agintariek funtsezkotzat jo gaituztelako, funtsezkotzat, gizarteak eta ekonomiak beren jarduerak modu seguruan jarraitu ahal izateko.

Gure pandemia ez da COVID-19ra mugatzen; hau da, gure pandemia nagusia perakrietatea da. Emakume aurpegia duen prekaritateak, sistema depredadore bateko estamentu matxista eta kapitalistek bultzatuta, pandemian zehar (zerbitzu publikoak argalduz) bizitzak jokoan ipini ondoren, ez du nahikoa, eta orain, langile klasearen bizi-baldintzen eta, bereziki, garbitzaileen baldintzen aurka doa.

Egoera honetan, patronalak soldata arrakala aitortu gabe jarraitzen du eta garbitasun feminizatuari balioa kentzen dio. Beste urte batzuetan adina irabazi ez dutela argudiatuz, % 0ko igoera proposatu dute eta 2019 eta 2020rako.

Urtarrilean eginiko bi eguneko grebaren ondoren, eskaintza %0,5 igo da 2021 eta 2022rako, %1eko eta %1,5ko eskaintzarekin 2021 eta 2022rako hurrenez-hurren. Erostea ahalmena ere bermatu gabe.

Grebalariak hiru aldarrikapen nagusi lehenetsi dituzte: soldata-arrakalarekin amaitzeko pausuak ematea, sektoreak pairatzen duen partzialitatearen aurka neurriak hartzea, eta etorkizunean eman daitezken murrizketen aurkako neurriak hartzea.

OHAR ETA DEIALDIAK

'Graziano, eta beste...' liburuaren aurkezpena

Oñatiko ondarea jaso eta ezagutzera ematen diharduen *Gure Bazterrak* taldeko Ander Lizarralde argitaratu duen *Graziano*, eta beste... liburuaren aurkezpen ekitaldia egingo da martxoaren 31n, gaztetxean, 18:00etan.

Astearte informatiboak

Covid-a gure bizitzetan izaten ari den inpaktua aztertzeko Debagoieneko Osasuna eta Eskubideak taldeak beste bi hitzaldi antolatu ditu apirilako: 'Elikadura eta Bizitza Estiloaren bidez sistema inmunea indartzea' (Isabel Moreno / apirilak 20) eta 'Pandemiari buruzko egia' (Cristina Martin / apirilak 27), Santa Ana aretoan, 19:00. Lekua erreserbatzeko: 658719089 / osasunaetaeskubideakdebagoiena@protonmail.com

Haurrentzako ekintzak


Txalokoa ludotekak haurrei zuzendutako ekintza bereziak antolatu ditu hurrengo egunetarako: **Martxoak 31** (Txorroten, 16:30) 'Plastilina+Trigonos'; **apirilak 6** (azokan, 10:30) 'Puzleak+Bitxigintza'; **apirilak 7** (San Martin, 10:30) 'Udaberriko landaketak+orka jolasak'; **apirilak 8** (Txorroten, 10:30) 'Mural erraldoia+mahai jolasak'; **apirilak 9** (Goiena plazan, 10:30) 'Makedo+kaleak apaindu'.



Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • OÑATI (Gipuzkoa)
Tel.: 943 78 11 15 • www.batuak.com



Reala eta Athletic Azkoagainen

 Larunbateko finala dela eta, aldizkariko lehen orrietako erreportaia prestatzen ari ginela, argazki hau topatu genuen artxiboan. Reala eta Athletic-en lehen taldeak Azkoagainen. 1973ko azaroaren 1ean jokatu zen lagunartekoa eta bilbotarrak nagusitu ziren (0-5). Jende andana bildu zen Lezesarri auzoko futbol zelaian.



ANDRÉS ARLANZÓN

OHAR ETA DEIALDIAK

Errefuxiatuen aldeko janari-bilketa egingo du Hotz Oñatik apirilaren 15, 16 eta 17an

Urte “zaila, arraroa eta desberdina” izan da, eta, jende askok bezala, aurreikusitako jarduera asko bertan behera utzi eta atzeratu behar izan ditu Hotz-Oñati Taldeak.

Baina, berriz ere, pixkanaka-pixkanaka eta egungo egoerak ahalbidetzen duen neurrian, errefuxiatuentzako kontzientziazio- eta laguntza-zereginari heldu nahi dio, Oñatiko herritarren laguntzarekin, orain arte bezala.

Horregatik, apirilaren 15, 16 eta 17an egingo den janari-bilketan parte hartzera gonbidatu eta animatu nahi dituzte herritar guztiak.

Eroski Center, Eroski City, Errekaldeko Denda, BM eta San Migel Kooperatibaren egingo da janari bilketa. Lekaleak, pasta, arroza, arrain-, barazki- eta lekale-kontserbak, olioak, haurrentzako esne hautsa, eta barra energetikoak batu nahi dira. (Txerrikirik ez.)

Batutako elikagai guztiak **Zaporeak** taldeak Lesbos-en (Grezia) duen proiektura bidaliko dira.



Batutako elikagai guztiak Zaporeak taldeak Lesbosen duen proiektura bidaliko dira

‘Varaddos’ filma eta solasaldia SMHko kideekin

APIRILAK 21, ASTEAZKENA ZINE ARETOAN, 18:30

Hotz-Oñati taldearen eskutik **Varados** dokumentala (Helena Taberna) ikusteko aukera izango dugu apirilaren 21ean. Ondoren, solasaldia egongo da SMH (Itsas Salbamentu Humanitarioa) taldeko kideekin (Aita Mari ontzia). Edukiera mugatua denez, sarrerak (dohainik) aurrez eskuratu behar dira Txokolateixan edo <https://onatikultura.sacatuentrada.es> atarian.





ARRIZABALAGA
Aroztegia

Berezo Ind. 10
Tel. 943 78 14 64



PAKITA
Altzariak

Sta. Marina, 6
Tel. 943 78 02 21

SUKALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIRA ENPOTRATURIKO ALTZARIAK

IRAZOLA

Okindegia

Ostiral, asteburu eta jai egunetan baserriko ogia, egurrezko labean egina

Larraña auzoa, 44 • Tel.: 943 78 25 97 • Mug.: 688 630 754



Gure ekintzen berri emango duen atala...

UDALEKU IREKIAK

Aurtengo Udalekuei ere maitasunez eta gogoz helduko diegu. **Familien kontziliazio egoeran laguntzeko eta haurrei me-rezitako uztaila eskaintzeko.** Oinarrian landuko ditugun balioak euskara, tratu onak, hezkidetzta, emozioak, natura eta kalea gureganatzearen eta errespetatzearen garrantzia, parte hartzea, eta aniztasuna izango dira. Guztia Jolasa oinarri hartuta.

Beti ere momentuko segurtasun eta higiene irizpideak aintzat hartuko ditugu. Beharrezko material eta baliabideak eskura izanda. Hezitzaile eta koordinatzaile lantaldeak COVID-19aren gaineko beharrezko formazioa jasoko dugu, eta beharrezkoa diren protokolo eta errutinak barneratuko eta familiei helaraziko dizkiegu. Hori bai, daukagun egoera berezi hau dela eta aurtengo **udalekuetan plazak mugatu behar**ren aurkitu gara, eta kopurua baino gehiago izena emanez gero zozketa egin behar izango dugu.

NOIZ: Ekainaren 28tik uztailaren 23ra. **ORDUTEGIA:** 09.00-13.00 **ADINA:** 2009-2017an jaiotakoak (biak barne). **TOKIA:** Herriko gune ezberdinetan. **MATRIKULA:** 71,53€, bigarrena 61,31€, hirugarrena 51,09€, laugarrenetik aurrera doan. **HAURREN IZENA EMATEKO EPEA:** apirilaren 19tik 30ra (biak barne). **IZENA EMATEKO MODUA:** Online www.onati.eus helbidean. Behin ordainketa eginda, online izenematea bete beharko da, umeen arduradun baten nortasun agiriaren kopia eta aipatutako ordainketa agiria gehitu beharko dira. Izena emateko epean 688786659 telefonoan eta Ludotekan (09:00-12:00 / 17:00-19:00) laguntza zerbitzua eskainiko da online sisteman arazoak dauzkatenentzako.

> UDALEKU IREKIEN BEGIRALEEN KONTRATAZIOA

IZENA EMATEKO EPEA: Apirilaren 6tik 16ra. **BALDINTZAK ETA INFORMAZIO GEHIAGO:** Oñatiko Udalean edo www.onati.eus.

> GAZTE ELKARTE ETA SORMEN DIRULAGUNTZAK

Oñatiko Udaleko Haur eta Gazteria sailak, aurtun ere, gazte elkarteak eta sormena bultzatzea helburu duten diru-laguntzak jarri ditu martxan. Urteko programaketa -Elkarteen sustapena, Kultur sormena eta hedapena (diskak, audio-bisualak, ...), Apirilaren 29rarte egongo da eskatzea. Informazio gehiago Gaztelekuan, Oñatiko Udalean edo www.onati.eus.

> GAZTE EMANTZIPAZIORAKO DIRULAGUNTZAK

Oñatiko Udaleko Haur eta Gazteria Sailak alokairuko etxebizitza eskuratzea sustatzea helburu duten diru-laguntzak martxan jarriko ditu aurtun ere. **Dagoneko eskatu daitezke, urriaren 15erarte.** Informazio gehiago Gaztelekuan, Oñatiko Udalean edo www.onati.eus.

> OÑATIKO GAZTELEKUA ZUK ZEUK LEHIAKETAKO FINALISTEN ARTEAN

Garapen jasangarriarekin lotutako "ginkana erraldoi" moduko bat da Zuk Zeuk; Euskal Herriko 900 gaztek hartu dute parte, eta arlo pribatuko zein publikoko elkarte babesleek jarritako erronkei egin diete aurre. Zuk Zeuk Lehiaketan, Euskal Herriko eragileek aurkeztutako Garapen Iraunkorreko Helburuak, modu dinamikoa eta ludikoa batean lantzen dituzte gazteek 2 hilabetetan zehar. 300 gaztek 20 taldetan lortu dute aste honetan jokatu den finalera pasatzea, eta horien artean daude Oñatiko gaztelekuko 3 taldeak!!





ANTSIETATEA ETA ESTRESA Jabetze Eskolako azken ikastaroa

Emakumeen Jabetze Eskolak ikasturte honetarako antolatu duen azken ikastaro-tailerra hasiko da apirilaren 12an, Pepa Bojó **psikologaren** eskutik. Krisi momentuek eta egoera zailek gure gorputzetan duten eragina aztertu, eta gure autotestimua ea ahalduz prozesua indartzeko gakoak deskubritzea da ikastaroaren helburua. Hogei ordu izango dira, astelehenetan (18:00-20:00). Prezioa, 20€. Izen-ematea: berdintasuna@onati.eus / 943780411 (Berdintasun saila).

'ZINEGOAK' HEDAPENA. Bilboko Gaylesbitrans 18. Zine eta Arte Eszenikoen Jaialdian aurkeztutako sei laburmetrai ikusteko aukera izango dugu apirilaren 28an, kultur etxean, 19:00etan.



Benita Arejolaleibak 100 urte bete ditu

Martxoaren 21ean bete zituen 100 urte Benita Arejolaleibak, eta ohiturari jarraituz, oroigarria eta lore sorta jaso zituen Izaro Elorza, alkatea, eta Susana Altuna, Ongizate batzordeko buruaren eskutik, herritar guztien izenean. Bost anai-arrebatan bigarrena, Bergarako Basalgo auzoan jaio eta Teodoro Gaztelurekin ezkondu zen Angiozarrera, eta 'Beko' taberna-jatetxeko buru jardun zuen 46 urtez. Oso estimatua zen hango menestra. Jatetxea itxi ondoren Oñatira etorri zen, duela 32 urte, eta bertan bizi da Jose Luis semea eta Begoña errainarekin.

Horrenbestez bost dira 100 urtetik gorako herritarrak une honetan, denak emakumezkoak. Nagusienak 104 urte ditu.

Izan jasangarri

#Izanjasangarri

Eguneroko bizitzan,
ohitura aldaketa txikiek,
gure bizitzetan aldaketa
nabarmenik suposatzen ez
badute ere, ingurumenean
epe ertain eta luzean,
aldaketa positiboak
dakartzate

✉
kontsumojasangarriaonati@
tutanota.com

Kontsumo jasangarri taldea

Hileko proposamenak Apirila



Kontsumo jasangarria gauzatzeko ekintza bat:

Argia, ura, plastikoa... Pausu txikiak emanez asko aurreztu dezakezu; gelatik irtendakoan argiak itzali, hortzak garbitu bitartean ur txorota itxi, erosketak egiteko zure poltsak eraman....



Kultura jasangarriaren txokoa:

Plasticus maritimus. Una especie invasora. (Ana Pêgo. Edit. Kalandraka): Oñatiko liburutegian aurkitu dezakezen gazte zein helduentzako liburu hau desagerrarazi behar den "espezie inbaditzaile" (plastikoa) horren fitxa zientifikoa aurkezten duen gida da.



Kontsumo jasangarriari buruzko datua:

Segunduro 200 kilo baino gehiago plastiko igortzen dira itsaso eta ozeanoetara, bertako biodibertsitatea eta ekosistemak jokuan jarri eta ondorioz planeta osoarenak.

<https://www.google.com/amp/s/www.fundacionaque.org/mar-de-plastico-el-80-de-la-basura-en-el-mar-es-plastico/amp/>



Ekimen jasangarri bat:

Martxoaren 27an "Planetaren ordua" ospatu zen. Klima aldaketa eta biodibertsitatearen galeraren aurkako mugimendu mundiala da, keinu sinboliko bezala ordu batez argi guztiak itzaltzean datza. Zu ere, animatuko zara hurrengoan?

XXVIII. OÑATIKO DUATLOIA

ERLOJUPEKO FORMATUAN

Apirilaren 24an jokatuko da Euskadiko eta Gipuzkoako sprint erako txapelak egongo dira jokoan.

📷 Félix Sánchez



az bertan behera geratu zen, Covid-19aren ondorioz, baina aurren, zorionez, duatloiaz gozatzeko aukera izango dugu berri ere. Apirilaren 24an jokatuko da Oñatiko XXVIII. Duatloia. Edizio berezia izango da, federazioak markatutako protokoloari jarraituz, erlojupeko formatuan jokatuko baita, eta *Sprint* distantzian (beste urte batzuetakoaren erdia). Euskadiko zirkuituko lehenengo proba izango da, eta duatletak lehiatzeko irrikaz daude (ordu eta erdian agortu ziren 300 dortsalak). Gainera, Gipuzkoako eta Euskadiko txapelak egongo dira jokoan. Beraz, ikuskizun ederra izateko osagai guztiak ditu.

SPRINT DISTANTZIAN

Bizi dugun osasun egoera aintzat hartuz, aurtengo duatloia erlojupeko formatuan jokatuko da. Hau da, lehiakideak banan-banan abiatuko dira eta bakoitzak bere lana egin beharko du eta ezingo da beste lehiakide baten lanaz baliatu. Bizikletako sek-



torean, adibidez, debekatuta egongo da gurpilean joatea. Ibilbide osoa osatzeko bakoitzak behar duen denborak erabakiko du sailkapetan.

Distantziari dagokionez, aurtengo duatloia *Sprint* erakoa izango da: 5 km. korrika / 20 km. bizikletan / 2,5 km. korrika. Ikusi ibilbideak ondoko orrian edo <https://www.oñatikoduatloia.com> helbidean. Lehenengo parte hartzailea 16:00etan abiatuko da, eta azkena 18:30etan. Helmugan 19:30ak aldera sartuko da azken lehiakidea. (Probak dirauen bitartean trafikoa erabat moztuta egongo da korrikako eta bizikletako ibilbideetan).

Aloña Mendi Triatloi saileko kideak gogor ari dira lanean bizi dugun egoerara egokitutako proba antolatu ahal izateko. Eskerrak eman nahi dizkiete udalari, federazioari, babesleei eta bidegurutzek zaintzen egongo diren laguntzaile guztiei, eta herritarrei, goza dezatela ikuskizunaz unean uneko egoera kontuan hartuta.

- **IBILBIDEA:** Foruen plaza, Atzeko Kale, Maria Irizar Kurtebide, Moiu, Errekaldeko beheko partea, Bakardadeko Ama, Kale Zaharra, Lizaur, Ibarra, Unibertsitate etorbidea, (Portu - Kale Barria), Foruen plaza.
- **DISTANTZIA:** 2,5 km-ko ibilbidea. Lehen sektorean bi itzuli emango dizkiote, eta bigarrenen 1 (Portu kaletik joan barik, zuzenean plazan satuko dira).

KORRIKAKO SEKTOREAK (5 km. / 2,5 km.)

- **IBILBIDEA:** Foruen plaza, San Juan kale, Saihesbidea (San Prudentzioko errotondara joan-etorria), Zañartu, Santipillau, Saihesbidea (Azkogaineraino), Berezaio, Murgiako ermita, San Martin, Aita Lizarralde, Saihesbidea, San Juan kalea, Foruen plaza.
- **DISTANTZIA:** 20 km.-ko ibilbidea. Itzuli bat emango diote. Lehenengo 12 km.-ak lauak dira; azkenengo 8 km.-ak bihurri samarrak.

BIZIKLETAKO SEKTOREA (20km.)

Duatloi proba osoa zuzenean *streaming* bidez jarraitzeko aukera egongo da antolakuntzaren youtube kanalean. Hainbat kamera izango dira ibilbide osoan zehar eta irteera zein helmugak emateaz gain, ibilbidean zeharreko irudiak ere eskainiko dira. Bi esatari egongo dira partaideen lana komentatu eta partzialak denbora errealean ematen.

STREAMING BIDEZ ZUZENEAN

TRAFIKO MOZKETAK

16:00etan hasiko da duatloia, eta probak iraungo duen hiru ordutan (19:15ak arte, gutxi gora behera) **Oñati eta San Prudentzio arteko errepeidea** itxita egongo da trafikoarentzat. Horrez gain, **Zañartu, Garagaltza eta Asentzio** inguruko herritarrei ere eragingo die mozketak. Gainera, herri barruan ezingo da Bidaurretako errotondatik behera kotxean ibili, duatloia amaitu arte.

Marisol Ramos Espainiako azpitxapelduna krosean

Marisol Ramos bigarren sailkatu zen martxoaren 14an Almodóvar del Rio-n (Kordoba) jokaturako Espainiako kros txapelketan F60 mailan. Aloña Mendiko korrikalariak 25.48an osatu zuen 6,2 km.-ko ibilbidea, irabazlearengandik 15 segundura. Batera joan ziren lehen bi itzulietan, baina oñatiarrak ezin izan zion eutsi azken erritmo aldaketari. Bestalde, txapelketak borobiltzeko jokatu zen bikote mixtoen errelebo txapelketan (2x2) Ramosek urrea irabazi zuen Errenteriako taldekideekin batera +55 mailan.



Alonso eta Arregi podiumean mendi eskiko Espainiako txapelketan



Martxoaren 21ean Candanchun jokatu zen Espainiako bikotekako txapelketan hirugarren sailkatu ziren Axier Alonso (senior mailan) eta Sara Arregi (junior mailan) oñatiarrak, Euskadiko selekzioa ordezkatzuz, Iñigo Mtnz. de Albornoz eta Carlota Martinezekin osatu zuten bikotea. Haritz Arregi 7. helmugaratu zen.

Denboraldiko aurreneko podiuma Danel Casaisentzat

Aurten AMPO taldean ari den Danel Casais txirrindularia bigarren sailkatu zen martxoaren 14an, Altsasuko Udaberri Sarian. Tropelari aurea hartuta iritsi zen, baina Xabier Zabalak hartu zuen menpean sprintean.



Gualbi
asesores

Bezeroen beharrei erantzuteko prest!

Kontabilitate administratiboa • Fiskalitatea
Lan-arloa • Kontu-ikuskaritza
Merkataritza • Abokatuak

Euskadi Etorbidea 6
T.: 943 781 648
onati@gualbiasesores.com
-
www.gualbiasesores.com



BEITA

XUP! TALDEAK ANTZEZLAN BERRIA AURKEZTUKO DU APIRILAREN 16AN

Sexu-erasoen gaia lantzen dute, gazte talde baten ikuspuntutik

17 eta 19 arteko zortzi gaztek (Maddi Altolagirre, Sara Arregi, Aitor Gomez, Txomin Maidagan, Izar Mendiola, Malen Perez de Arenaza, Paula Polo eta Danel Teran) osatzen duten Xup! antzerki taldeak bere bigarren lana aurkeztuko du apirilaren 16an.

2019ko abenduan estreinatu ziren, *Kontraizanak* lanarekin, eta hark utzitako aho-zapore gozoak bultzatuta, bigarren lana prestatzeari ekin zioten iaz. Koronabirusak eta konfinamenduak gauzak zail ipini zizkien, baina uda parteko arnas aldia baliatuz, Lizarrara joan ziren zortziak bost egunerako, eta hantxe hasi zen mamitzen orain estreinatuko duten lana. "Esperientzia

Gezalaga
Margoak

Tel. 616 277 999 - 616 388 396 | gezalagamargoak@hotmail.com



oso aberasgarria izan zen Lizarrakoa. Gure artean hobeto ezagutu eta taldea gehiago batzeko balio izan zigun, eta hantxe ipini genituen antzezlan berriaren oinarriak".

SEXU ERASOA ABIAPUNTU

Beita izena du lan berriak, eta sexu-erasoen gaia jorrazten du, gazteen ikuspuntutik. Erasoren biktima izan den gazte baten kuadrillako lagun eta inguruko artean sortzen diren jarrerak, jokabideak eta erreakzioak islatzen dira. Eta horien atzean dauden azpi-tramak ere inportanteak dira, jakina, pertsonaia bakoitzak bere arazoak, bere bizipenak, bere 'motxila' baitu, eta horrek baldintzatzen du, hein handi batean, gazte horien jokabidea. "Gai sensiblea da, tentuz landu beharrekoa, eta horregatik sexologian eta psikologian aditua den profesional batekin egon ginen, gidoia idatzi aurretik".

Kontraizanak antzezlanean ere gazteek dituzten kezka eta buruhauste ezberdinak jorraztu zituzten, baina hura gehiago izan zen umorearen ikuspuntutik. Alde horretatik, oso desberdina izango da *Beita* lan berria. "Honek ere baditu umore ikutuak, baina drama bat da, eta oso bestelako erregistro batean ariko gara". Egiturari dagokionez ere izango da alderik. Aurreko antzezlanean pertsonaia guztiak eskenatokian zeuden hasi eta buka; lan berriak, aldiz, ekitaldi ezberdinak ditu eta agertoki desberdinetan (etxean, tabernan...) garatzen da. Orubete pasatxoko iraupena du.

ANTZERKIGINTZAZ GOZATZEN

Estreinaldiaren aurreko kilimak sentitzen hasita, baina taula gainera irteteko irrikaz daude, jada. Eta geu ere bai antzezlan ikusteko. Pozgarria da 17-19 urteko zortzi gazte antzerkia egiten ikustea, eta beraiek ere asko gozaten ari direla aitortzen dute. "Deskubrimendu ikaragarria izan da antzerkia; beste pertsona batzuen azalean jartzeko bidea ematen dizu, eta horrek eskatzen duen lanketa pertsonala oso aberasgarria da, pertsonalki. Gainera, ez da bakarrik eskenatokira irtetea; antzezlan baten atzean beste lan asko ere badaude (gidoia, atrezzoak, komunikazioa...) eta hori guztia geure artean antolatzea ere oso aberasgarria da".

Apirilaren 24an izango da *Beita* antzezlanaren estreinaldia, Santa Ana antzokian. Aforo mugak direla eta, bi emanaldi egingo dituzte, xx:xx eta xx:xxetan. Sarrerak (6€) www.oñati.eus webgunean eta Txokolateixan eskura daitezke.

MOTZEAN

ZARRAMARRA PODCASTaren bigarren denboraldia prest

'Umorearen marraz hara' lelopean, Zarramarra taldearen podcast-ez gozatzeko aukera izango dugu laster. Martxoaren 27an grabatu zituzten Gaztelekuan denboraldi berriko hiru saioak



Iban Zanguitu, Antton Telleria eta Aiora Probatxoa gonbidatuekin, eta apirilaren 8an, 15ean eta 22an ikusi ahal izango ditugu **Youtube: Zarramarra eta Ivoox/Spotify: Zarramarra programa** plataformetan.

Oñati Irratia streaming bidez entzungai

Aurrerantzean errazagoa izango da Oñati Irratia zuzenean entzutea, zauden lekuan zaudela, *streaming* bidez entzuteko aukera baitago, udalaren webguneko estekan sakatuta. Astelehenetik ostiralera ordu eta erdiko (11:30-13:00) zuzeneko saioa emititzen da Oñati Irratian (gauetz errepikatzen da, 22:00etatik aurrera). Gogoratu, bestalde, Oñati Irratian egindako elkarriketak nahieran entzuteko aukera ere badagoela udalaren webgunean.



Asun Casasola saria Saioa Varelaentzat

Irunen antolatzen den Asun Casasola ipuin lehiaketako seigarren edizioa irabazi du Saioa Varela Crespok 16 urtetik gorakoen mailan. Inoizko partaidetzarik handiena izan da aurten, eta helduen mailara aurkeztutako 364 ipuinen artean hautatu du epaimahaiak oñatiarraren *Azken erabakia* izeneko lana. Indarkeria matxistaren aurkako borroka ikuspuntu positibo batetik islatu duten ipuinak baloratu ditu bereziki epaimahaiak. Varelak 300 euroko saria jaso du.



Martxoaren 8aren inguruko irakurketa gida

Feminismoari, berdintasunari eta justiziarri buruzko desberdinak daudela kontuan hartuz, irizpide gisa 'berritasuna' hartuta osatu dute gida; hau da, 2020an eta 2021ean zehar argitaratutako liburuak proposatu dituzte, udal liburutegian bertan aurki daitezkeenak. Poesia, saiakera, nobela, komikia... emakumeek idatzi eta protagonizatutako (gehienak) liburuak, eta irakurtzea eta komentatzea merezi dutenak. Udal liburutegian eskura daitezke gida eta baita bertan aipatzen diren liburuak ere.



oñabike.com

Otadi 25, Oñati · Tel.: 943 78 05 65

BIZIKLETAK · PATINETEAK · KIROL ARROPAK



Dantza tradizionalen erakustaldia

Ederra izan da gure arbasoek mendeetan zehar izan dituzten janzkeren berri izatea eta horri buruz ikastea. Izan ere, guretzat ez da garrantzitsua bakarrik dantzak mantentzea; aitzitik, garrantzitsua iruditzen zaigu, besteak beste, XX. mendearen hasieran gure arbaso baserritarrek janzten zituzten arropak ondo ezagutzea, plazaratzean aberasgarri izan gaitzen.

Saiatze hortan ezin gelditu...kantatzen zuen Laboak, eta horretan darraigu: saiatzen. Oraingo honetan, aipatu arropok eta, baita beste batzuk ere, dantzan ikusteko aukera izango dugu. Apirilean Euskal Herriko dantza tradizionala birsortzen duten dantza talde bi gonbidatuko ditugu: batetik, Iurretako Mikel Deuna dantza taldea; bestetik, berriz, Iruñeko Duguna dantza taldea. Hain zuzen ere, hilaren 17an izango da aipatu ekitaldia, arratsaldeko 18:00etan, plazako pilotalekuan. Sarrerak eskuragarri izango ditugu oñati.eusen eta Txokolateixan, 5 euroren truke.

Biek ala biek ematen dituzte beraien herrietan dagozkien dantza tradizionalak. Lehenengo kasuan, Bizkaiko dantzari dantza errepertorio ederra eskainiko digute; bigarrean,

beriz, izango dugu azken hamarkadetan Iruñetik eta Iruñarako sortutako dantza errepertorioaz gozatzeko aukera.

Esan barik doa: euskal herrian dugun ondarearen zati txiki baina ikaragarri handi bat izango dugu ikusgai gure herrian. Eta, zorionez, ondare tradizionala bidea egiten ari da. Urratsez urrats ari gara, esan moduan, bidea egiten. Eta, jakina denez, ez dira pausu guztiak tamaina berekoak. Ikaragarri pausu handia eman zuten gure dantza taldeko hainbat eta hainbat emakumek beraien dantzarako tokia eskatu zutenetik gaurdaino.

Zorionez, azken urteotan dantzan ikusi ditugu, kalez kale, Oñatiko dantzari jantzita. Ez dira bakarrik izan, baina, lanketa horretan. Apirilean gure artera etorriko diren iurretarrak ere izan zuten beraien borroka. Jorrotutako bide horretan izandako bizipenak eta beste hainbat kontu ezagutzeko parada eskainiko dugu Jantzari «dantza, tradizioa eta parekidetasuna» izeneko dokumentalarekin. Aipatu **emanaldia hilaren 13an izango da, 18:30etan, Santa Ana antzokian**. Sarrera doan izango da: aurrez eskuratu beharko da, baita kasu honetan ere, aurrez aipatu eran.

Emanaldi ederrez beteta dator, beraz, apirila. Goza dezagun Bizkaiko eta Nafarroako dantzari eta dantzekin!

Gora Oñatz!

Iñigo Murgiondo Agirre


Oñatz Dantza taldeko komunikazio taldea





atxi murka

#1. Egoera



Bizipoza egunero berdin bizi duenak
ez ditu hainbat gauza ezagutzen
ikertzaile pobrea da
bere eta inguruarena.

..horregatik, tristura, bizipoza aztertu eta ezagutzeko egina dago..



Sortzailea bazara, animatu eta bidali zure lana: atximurka@gmail.com helbidera.



AGENDA

Kultur ekitaldiei buruzko informazioa eta sarrera salmenta
www.oñati.eus webgunean (QR kodean) edo Txokolateixan



MUSIKA

APIRILAK 10 - 11 /

LARRU BELTZAK

'Nork epaituko du epailea' diskoaren aurkezpen kontzertuak. Apirilaren 10ean 17:00etan eta 18:30etan, eta apirilaren 11n 12:30etan. [Antixena Gaztetxean](#).

APIRILAK 17 / 17:00

BROKEN LEGACY + HELLWATCH

Oñati eta Eibarko metal taldeen kontzertua. Sarrera: 3€. [Antixena Gaztetxean](#).

APIRILAK 18 / 12:30

MAREN

Musikari bizkaitarrak bere lehen diskoa aurkeztuko du. Sarrera: 5€. [Gaztelekuan](#).

APIRILAK 24 / XX:XX

LEE-KORE eta LINED

Oñatiko hard core/metal eta Arrasate-Bergarako thrash-metal taldeen kontzertua. [Gaztelekuan](#)

APIRILAK 25 / 12:00

IDOIA ASURMENDI

'Ilun eta abar' diskoa aurkeztuko du abeslari aramaioarrak. Sarrera: 5€ (langabetuek 3€). [Antixena gaztetxean](#)

APIRILAK 25 / XX:XX

ABEREH

Eric Berganza bizkaitarra buru duen rock-grunge taldearen kontzertua. [Gaztelekuan](#)

ANTZERKIA

APIRILAK 16 / 18:00

BEITA

Xup! herriko antzerki talde gaztearen antzezlan berria. Sarrera: (6€). Santa Ana aretoan.

PODCAST SAIOAK

APIRILAK 8, 15 eta 22 / 20:30

ZARRAMARRA PODCAST

Zarramarra taldekoen saioak (30'), Antton Telleria, Aiora Probatxoa, Ibai Zangitu eta beste gonbidatu batzuekin. *Youtube: Zarramarra eta Yvoox/Spotify: Zarramarra programa* plataformetan.

TAILERRAK

APIRILAK 21, 22 eta 23 / 17:30

ITZAL-TITEREEN TAILERRA

Udal liburutegiak antolatuta, 8 urtetik gorako gaztetxoei zuzenduta. Hiru eguneko tailerra (17:30-19:00): itzal titereak, gorputzarekin itzalak eta hondarrarekin proiektzioak... (14 lagunentzako tokia, hiru saioetan parte hartzeko). Izen-ematea, apirilaren 12tik 16ra udal liburutegian.



HITZALDI-SOLASALDIAK

APIRILAK 2 / 17:00

GIZA HISTORIA ENERGIAREN IKUSPUNTUTIK

Hizlaria: Aimar Uribealzo. [Gaztetxean](#).

APIRILAK 20 / 19:00

NOLA HOBETU ZURE SISTEMA INMUNEA ELIKADURAREN BIDEZ

Hizlaria: Isabel Moreno, elikadura osasungarrian aditua. [Santa Anan](#)

APIRILAK 27 / 19:00

PANDEMIARI BURUZKO EGIA

Hizlaria: Cristina Martin Jimenez, idazlea eta kazetaritzan doktorea. [Santa Ana](#).

APIRILAK 27 /

GAZTEEN KONTSUMOAK GAURKO ERREALATEAN

Guraso Eskolak antolatuta. Nerabeen gurasoei zuzendua. Hizlaria: Pakita Mateos (Agipad). [Online](#)

ZINEA / DOKUMENTALAK

APIRILAK 23 / 20:00

BARRUKO ARRASTUAK

Oñatiko Euskal Memoria taldeak egindako dokumentala, Frankismo garaitik gaur egun arte torturak jasan dituzten herritarren testigantzekin. [Gaztetxean](#)

APIRILAK 28 / 19:00

ZINEGOAK

Bilboko Gaylesbitrans 18. Nazioarteko Zine eta Arte Eszenikoetako Jaialdian (www.zinegoak.com) aurkeztutako sei laburmetrai ikusgai. [Kultur etxean](#).

BERTSOAK

APIRILAK 18 / 12:00

BERTSO SAIO FEMINISTA

Marabillas gaztetxearen desalojoaren harira Iruñean burutu zen Vergeleko ekintzari lotutako prozesu judiziala eta zigor ekonomikoa ordaintzen laguntzeko. Elkartasun bonoa (10€). [Gaztetxean](#).

JAIALDIA

APIRILAK 24 /

PATUKAFEST

Bargastak talde feministak antolatutako jaialdia, emakumeei eta transmarikaboloei zuzenduta. [Gaztetxean](#).

ARANBURU ALTZARIAK

Kale Zaharra, 21
Kale Barria, 11
Lizaur A., 7
OÑATI
Tfnoak: 78 11 60 / 78 05 73

ESTILO
GUZTIETAKO
ALTZARIAK

LANPARAK,
TAPIZAK,
KORTINAK



MODA BEREZIA

Kale Barria, 12
Tel. Faxes: 943 71 62 40

**OSTEGUN
KONTALARIAK**

MIREN LARREA
(+ 6 urtekoentzat)
APIRILAK 15



6 urtetik gorako neska-mutikoei zuzendutako 'Rodarika' (gauero alabari telefonoz ipuin bat kontatzen zion italiar saltzaile-bidaariaren istorioan oinarrituta) saioa Haur Liburutegian. Bi emanaldi: 17:30/18:15 (*)

**DORLETA
KORTAZAR**
(4-5 urtekoentzat)
APIRILAK 29



4-5 urteko hurrei zuzendutako 'Egin putz' (hegan egiten duten ipuinak) saioa Haur Liburutegian. Bi saio: 17:30 / 18:15 (*)

(*) **Sarrerak eskuratzeko eman izena apirilaren 5etik 9ra: 943716111 / liburutegia@onati.eus / 688732826 (whatsapp)**



Hileko gomendioa

Audre Lorde aktibista feminista, lesbiana eta afroamerikarrak Berlinen bizi izan zituen urteak erakusten dizkigu dokumentalak. Argazki, grabazio eta elkarrizketen bidez hurbilagoz ezagutuko dugu emakume paregabe honen filosofia.

ZINEA



Apirilak 2 - 5

ZINE KLUBA:

- **NAGUSIAK:**
Dardara
(Berri Txarrak)
GAZTETXOAK:
Tom eta Jerry



Apirilak 8 - 12

ZINE KLUBA:
El agente topo
NAGUSIAK:
Nomadland
(6 izendapen Oscar sarietan)
GAZTETXOAK:
El rey elefante



Apirilak 15 - 19

ZINE KLUBA:
Solo las bestias
NAGUSIAK:
Non dago Mikel?
GAZTETXOAK:
Tessa eta ni



Apirilak 22 - 26

ZINE KLUBA:
Otra ronda (Truck)
NAGUSIAK:
Libertad (138)
18:45tan hasiko da
GAZTETXOAK:
¿Y ahora dónde esta Noe?



FARMAZIA

ANDUAGA

San Lorentzo 3 ☎ 943 78 21 16
Apirilak 1, 2, 3, 4, 5, 6, 14, 15, 23, 24 eta 25. Maiatzak 3 eta 4.

IGARTUA

Kale Zaharra 1 ☎ 943 78 01 22
Martxoak 30. Apirilak 7, 8, 16, 17, 18, 26 eta 27. Maiatzak 5 eta 6.

GARATE

Kale Barria 42 ☎ 943 78 05 58
Martxoak 31. Apirilak 9, 10, 11, 19, 20, 28 eta 29. Maiatzak 7, 8 eta 9.

ULDAIN

Kale Barria 6 ☎ 943 78 11 28
Apirilak 12, 13, 21, 22 eta 30. Maiatzak 1 eta 2.



MERKATU TXIKIA

GARAJE ITXIA ALOKAGA!

Ramon Irizar kalean, Bidebarrieta eta Atzeko Kaletik hurbil. Deitu: 619 817 072.

KLASE PARTIKULARRAK

Ingeniari-tzako ikaslea naiz eta LH, DBH eta Baxilergoko ikasleei klase partikularrak emateko prest nago. Deitu: 688816197

ETXEA ALOKAGA!

Kanpantxo kaleko 8an, 3. pisuan, 110m², 4 logela, 2 komun, egongela eta sukalde handia. Bista ederrak. Tel edo wasap: 635740123 (Andoni)

KLAS PARTIKULARRAK

Lehen Hezkuntzako eta Entzumena eta Hizkuntzako irakasleak (logopeda), partikularrak ematen ditu: 618310126



TABERNA • JATETXEA

Bidebarrieta 6
Tel.: 943 71 62 96
20560 OÑATI

FAGOR

INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOA





(*) Itten: arrastua, pistia

>> PASADIZUA

Zu zara zu, baiña ni naiz BERORI!

Etorri ei zan behin aguazilla baserri maiorazko baten etxera papel bat ekartera, eta esan ei otsan:

- Zu, papel hau ekartera etorri naiz, ayuntamientuan multa bat pagaitteko dakozu eta!

- Eta bestiak, braust!

- Zu zara zu, baiña ni naiz BERORI!!

Harrapo egik/n, ba, hori!



Aguazilla

>> EUSKERAZ EGOGI

BEGIRA EGON

*"Begira nago, begira,
hor goiko bide barrira,
noiz etorriko ete dan
maitea neure herrira."*

Begira egotia ezta betik norabait begira edo zerbait ikusten egotia patxara ederrian; zerbaiten edo baten baten zain edo itxoitten egotia be bada. Hortaz, *zeiñeri edo zeri begira hago?* esaldixak *zeiñen edo zeren zain hago?* be esan gura dau, batzuetan. Hona hemen ejemplo batzuk:

Orain panaderuari, peskateruari edo butaneruari begira nago.

Ha noiz etorriko dan / xatzun begira bazagoz, ederto zagoz!

Hari begira bazagoz, jai dakozu!

Durangon begira eukiko gaizue, hau da, Durangon zuen zain egongo gara.

Egitteko moduan dagueña hobeto xagok/n, zeiñek egingo begira dagueña baiño!


Dana dala, ezin ahaztu beste leku batzuetan 'zeren begira' be ebaltzen dala, adibidez: *Erantzunaren begira dago*

>> LETRA-ZOPIA

Ost- sufijua dakoin zenbat berba ezaguketan dozu? Sufijo horrek firmamentuari egitten xao erreferentzia. Ia, ba, letra-zopa honetan dagozen bederatzixak topaitten dittuzun!

Z	E	R	R	O	T	I	A	D	I	D
A	M	A	O	S	T	O	N	D	U	A
J	O	O	S	K	L	O	O	L	A	R
F	O	S	T	A	I	E	S		A	A
O	S	T	A	R	G	I	T	T	U	T
R	T	R	R	B	A	R	A	U	K	U
M	A	A	G	I	R	R	R		R	L
O	I	I	I	X	I	O	T	U	A	U
I	Z	X	X	A	X	K	I	U	T	A
A	I	A	A	X	A	S	A	M	S	B
S	A	N	U	A		O		E	O	I

ANTXIÑAKO FOTOGRAFIAK



Andres Aranzon Argazkaria - Oñatiko Udal Artxibuan Zerbitzua



Auzolanian jasotako itturrixa

Mendizaliak diranak oso ondo ezaguketan dauen **itturrixa** da Arantzazutik Urbixarako bidian dagueen hau. **Erroitegi** izeneko parajian eskintten dosku ur freskua gorunzkotan nahiz beherunzkotan. Noiztik, baiña? Ba, aurtengo udan beteko dittu 64 urte. Luzaruan Urbixako elizatzoko kapillau izan zan **Joxe Iñazio Lasa** frantziskotarraren ahalegiñairi esker **mol dau zan itturrixori auzolanian**. Izan be, proiektua udaletxian aurkeztu bihar izan zan, ura goragotik ekarri, lekua garbittu eta egogittu, hargintzaiaz arduratu eta beste hainbat lan burutu.

Aitta Lasak **txantxikuar pilatxo baten laguntzaia** euki eben bere asmua gauzatu ahal izateko. Gremixo desbardiñetako mendizale oñatiarrak alkartu ziran zeregin horretan: **Karlos Moiu**a eta **Bartolo Igartua** igeltseruak, **Migel Elortza** arotza, **Hijinio Azpiazu** iturgin-ojalaterua; **Migel Anjel Arzuaga** marrazkilaria-pinttoriak modutu eben krokisa; Sindikako **Julian Madinabeitiak** emun zittuan uraren tubexia pasaitteko lur-saillak; **Benjamin Astigarraga** kontzejalaren bittartez bideratu ziran udaleko baimen-kontuak; **Txantxiku Txoko** mendi-alkarteko **Joxe Mari Leturia**, **Joxe Mari Urtzelai** eta **Anjel Anduagak** be parte hartu euen, hala nola, **Frantzisko Azurmendik**, tarte libretan mendiko bidiak eta sendak markaitzen jarduten eben Portalekuko Pako txokolateruak. Arantzazuko **fraidegei batzuk** be majo saiatu ei ziran. Hargin-lanak, barriz, **Manuel Penak** egin zittuan.


Itturrixari hasieran **Ama Birjiña Pagokuaren** izena ifiñi xakon. Baiña historixiori hurrengo batian kontau biharko dotsuet. Gaurko argazkittan 1957ko irudixak ikusi zeinkie. Goixenian, urte haretako agustuan, inauguraziño-eguneko mezetara inguratu ziranak dagoz, atzetik hartuta gehixenak; ezkerreko abadia **Joxe Mari Agirrebaltzategi** oñatiarra da, eta meza-emulia **Joxe Iñazio Lasa** fraide matxinbentarra izan leike. Behian ezkerretara, proiektu haretan parte hartutako oñatiar batzuk agiri dira: ezkerretik eskumara, **Anjel Anduaga**, **Bartolo Igartua**, **Pako Azurmendi**, **Joxe Mari Leturia**, **Migel Elortza**, **Benjamin Astigarraga** eta **Joxe Mari Urtzelai**. Eskumakuan **Migel Elortza** agerketan xaku itturri onduan, berau egin barritan.

Honeik dittuzue fotografixen jatorrixak: goixenekua Oñatiko Udal Artxibuan dago Arlanzon fonduan eta Izar Salaberrik eskuratu dosku; beheko ezkerrekua Lourdes Azurmendiren bittartez heldu xaku; eta eskumakua Anton Elortzaren bidez. Argibide asko J. I. Lasaren **Tejendo historia** liburuan topau dittugu. Milla esker danoiri!



Innovation from nature

*Egurra eraldatuz,
gure inguruaren ongizatea eraldatzen dugu*



www.lana.eu

